

Amurrioko Kultura Plan Estrategikoa





Aurki- bidea





0. Sarrera	9
1. Metodologia	11
2. Aurretiko kontsiderazioak	13
3. Erronkak	19
4. Ardatzak, ildoak eta ekintzak	25
A1. Kohesioa eta koordinazioa	25
A1. I1. E1. Topaketarako aldeko testuinguru bat sortzea	25
A1. I1. E1.1. Bitartekaritza kolektiboko proposamen bat sortzea	25
A1. I1. E2. Kultur eragile pribatuen, herritarren ekimenen eta udalaren arteko harremana bultzatzea	26
A2. Publikoak eta komunitateak sortu eta sendotzea	29
A2. I1. Publikoak erdigunean kokatzea	29
A2. I1. E1. Audientziak komunikatu eta garatzeko datuak zentralizatzea	29
A2. I1. E1.1. Datu-baseen ustiapena ahalbidetzea	29
A2. I2. Haur eta gazteei arte eta kulturarako sarbidea bermatzea	30
A2. I2. E1. Ikastetxeekin lan egitea	30
A2. I2. E1.1. Heziketa eta kulturaren topaketarako aldeko testuinguru bat sortzea	30
A2. I2. E1.1.2. Kultur eskaintza eta komunikazio-ekintza zentralizatzea	30
A2. I2. E2. Familientzako kultur proposamenak bultzatzea	31
A2. I3. Pertsona eta kolektibo zaurgarriak integratzea	31
A2. I3. E1. Gizarte erakunde / baliabideekin kolaboratzea	31
A2. I3. E2. Kultur bitartekaritzako proiektu espezifikoek garapena ahalbidetzea	32
A2. I4. Kultur bizitzarako sarbidea bermatzea	32
A2. I4. E1. Entzutea eta jardun aktiboa	32
A2. I4. E2. Landa-eremuari arreta	33
A2. I5. Proiektu, esperientzia eta formatu berritzaileak bultzatzea	33
A2. I5. E1. Proposamen ezberdinak egon daitezen bultzatzea	33
A2. I6. Espazio publikoa kulturarako espazio modura bultzatzea	33
A2. I6. E1. Baldintzak ahalbidetzea	34
A3. Eskolak eta udal ekipamendu kulturalak	37
A3. I1. Amurrio Antzokia	37
A3. I1. E1. Publikoek garapena planifikatzea	39
A3. I1. E2. Zuzeneko obren tokiko ekoizpena babestea	39
A3. I1. E3. Lantaldea sendotzea	39
A3. I1. E3.1. Giza baliabideak indartzea	39
A3. I1. E3.2. Kanpoko laguntzak bermatzea	40
A3. I1. E3.3. Etengabeko prestakuntza ahalbidetzea	40
A3. I1. E4. Ezagutza kritikoa dokumentatzea	41



A3. I2. Joan de Aranoa arte eskola	41
A3. I2. E1. Proiektua egungo premietara egokitzea	42
A3. I2. E1.1. Lan-baldintza egokiak ahalbidetzea	43
A3. I3. Musika eskola eta Herri musika eskola.....	43
A3. I3. E1. Proiektu bakar bat sortzea.....	44
A3. I3. E2. Lantaldea sendotzea.....	45
A3. I4. Dantza-eskola.....	45
A3. I4. E1. Espazioa edota haren kudeaketa egokitzea	47
A3. I4. E2. Esleipen-kontratuan baldintza egokiak bermatzea.....	47
A3. I4. E3. Langileak gaineratzea	48
A3. I4. E4. Amurrio Antzokiarekin lankidetzatza optimizatzea.....	48
A3. I5. Liburutegia.....	49
A3. I5. E1. Espazioa egokitzea.....	50
A3. I5. E2. Inbentarioa eguneratzea	50
A3. I5. E3. Arreta bitartekaritzan ipintzea.....	51
A3. I5. E4. Ordutegi-irekiera egokitzea	51
A3. I5. E5. Lantaldetari etengabeko prestakuntza bermatzea	51
A3. I5. E6. Proiektua ebaluatzea.....	52
A3. I4. E7. Udalarekiko harremana optimizatzea.....	52
A4. Zerbitzu publikoko deiera duten herritarren ekimenak.....	55
A4. I1. Aiara Dantza Taldea	55
A4. I1. E1. Aiara Dantza Taldea babestea publiko espezifikoekin egiteko lanean.....	56
A4. I1. E2. Helburu dokumentaletarako baliabideak areagotzea.....	56
A4. I1. E3. Ebaluazio-sistemaren optimizazioa babestea	57
A4. I1. E4. Aiara Dantza Taldea lankidetzatza-proiektuetan txertatzea	57
A4. I2. Burubio Kultur Elkarte.....	57
A4. I2. E1. Espaziorako beharrezkoak diren lizentziak eskuratzea	58
A4. I2. E2. Proiektuaren kudeaketa babestea.....	59
A4. I2. E3. Lankidetzan egiteko ekimenak bultzatzea.....	59
A4. I2. E4. Udal esparruarekiko harremanak optimizatzea.....	60
A4. I2. E5. Proiektuaren bilakaera babestea	60
A4. I3. Elkarte-ehuna.....	60
A4. I3.1. Aimara Antzerkia	61
A4. I3.1. E1. Kolektiboaren jarduera babestea.....	61
A4. I3.1. E2. Komunitatearekiko harremana ahalbidetzea.....	61
A4. I3.2. Armuru Filatelia eta numismatika.....	61
A4. I3.2. E1. Jarraikortasuna babestea.....	62
A4. I3.3. Kuskua.....	62
A4. I3.3. E1. Auzoarekiko lotura handiago baterako bideak aztertzea.....	62
A4. I3.3. E2. Jarraikortasuna babestea.....	62




A4. I3.4. Mikologia	62
A4. I3.4. E1. Jarraikortasuna babestea	63
A4. I3.5. Vera Cruz	63
A4. I3.5. E1. Jarraikortasuna babestea	63
A4. I3.6. Battuere	63
A4. I3.6. E1. Jarraikortasuna babestea	63
A4. I3.7. Aztarna	64
A4. I3.7. E1. Jarraikortasuna babestea	64
A4. I3.8. Eskaut	64
A4. I3.8. E1. Jarraikortasuna babestea	64
A4. I3.9. Gakoak	65
A4. I3.9. E1. Jarraikortasuna babestea	65
A4. I3.10. Torre Aldea	65
A4. I3.10. E1. Adinekoen Kontseiluko kide gisa dagokion eginkizuna indartzea.....	65
A4. I3.11. Amurrio Racing Slot.....	65
A4. I3.11. E1. Jarraikortasunerako balizko bideak aztertzea	66
A4. I3.12. San Jose Auzotarren elkarte.....	66
A4. I3.12. E1. Jarraikortasuna babestea	66
A4. I3.13. Radio Club Ayala EA2RCA.....	66
A4. I3.13. E1. Jarraikortasuna babestea	67
A4. I3.14. Ohiturak.....	67
A4. I3.14. E1. Aurrekontu aldetiko zailtasunak ebaztea.....	67
A4. I3.14. E2. Jarraikortasuna babestea.....	67
A4. I3.15. Zankueta Korua.....	67
A4. I3.15. E1. Jarraikortasuna babestea	68
A4. I3.15. E2. Lankidetzak sortzea	68
A4. I3.16. Garrastatxu Aisialdi Elkarte.....	68
A4. I3.16. E1. Jarraikortasuna babestea	68
A4. I3.17. Santa Marina Olarri (San Roke).....	68
A4. I3.17. E1. Belaunaldi arteko txanda-hartzea babestea.....	68
A4. I3.18. Kanpai-jotzaileen elkarte	69
A4. I3.18. E1. Ekimen berriak bultzatzea.....	69
A4. I3.19. Villa de Amurrio familia elkarte	69
A4. I3.19. E1. Elkartearen jarraikortasuna babestea	70
A4. I3.20. Gizaki Sakon.....	70
A4. I3.20. E1. Elkarteko proiektuaren jarraikortasuna edo birmoldaketa babestea	70
A4. I3.21. Uhin Ona.....	70
A4. I3.21. E1. JEI elkartearen jarraikortasuna babestea	71
A4. I3.22. Biruzabal.....	71

A4. I3.22. E1. Elkartearen jarraikortasuna babestea.....	71
A4. I3.23. Arrastarikoak.....	71
A4. I3.23. E1. Elkartea sendotzea	71
A4. I3.23. E2. Hurbilketa-neurriak bultzatzea	72
A4. I3.24. Bañuetaibar	72
A4. I3.24. E1. Elkartea sendotzea.....	72
A4. I4. Atal honetan, balizko eragile berriak gaineratzea bermatzea	72
A5. Sorkuntza garaikidea	75
A5. I1. Sorkuntza babestea	75
A5. I1. E1. Urteko deialdiak aktibatu eta sendotzea	75
A5. I1. E1.1. Sorkuntza eta esperientziazko artistikoa bultzatzea	75
A5. I1. E1.2. Ondarearen inguruan lan egitea	75
A5. I2. Tokiko artisten obrak erakustea.....	76
A5. I2. E1. Tokiko obra erakusketa-espaziotan.....	76
A5. I3. Testuinguru hurbileko eragileekin kolaboratzea.....	76
A5. I3. E1. Loturak sortu eta sendotzea	76
A6. Enpresa-proiektuak.	79
A6. I1. Sorkuntza berriko ekimenak bultzatzea	79
A6. I1. E1. Tokiko eragileentzako deialdi bat aktibatzea.....	79
A6. I2. Kultur eta sormen industriekin lotutako enpresen sorrera babestea.....	79
A6. I2. E1. Koordinazioa optimizatzea.....	79
A6. I2. E1.1. Amurrio Bidean eta kultur esparruaren artean.	79
A6. I2. E1.2. Amurrio Bidean eta beste instituzio batzuen artean	80
A6. I3. Amurrio abagunerako espazio modura kokatzea.....	81
A6. I3. E1. Amurrio izaera desberdineko kultura- eta sormen-proiektuen garapenerako aukera - espazio gisa kokatzea.....	81
A7. Herriko jaiak.....	83
A8. Kulturaren zeharkakotasuna..	85
A8. I1. Kultura gizarte-eraldaketarako elementu modura balioan jartzea.....	85
A8. I1. E1. Bitartekaritzako baliabideak ahalbidetzea.....	85
A8. I1. E2. Kontakizunak ikuspegi berri batetik ematea	85
A8. I2. Sektore ezberdinak gurutza daitezela ahalbidetzea.....	86
A8. I2. E1. Programa espezifikoak sortzea.....	86
A8. I2. E2. Kanpoko programetan parte hartzea.....	86
A9. Kultura euskaraz.....	89
A9. I1. Komunitatea sortzea.....	89
A9. I1. E1. Plangintza egitea	89
A9. I2. Euskarazko sorkuntza babestea.....	89
A9. I2. E1. Programa espezifikoak sortzea.....	89
A9. I3. Euskarazko erakusketak babestea	90




A9. I3. E2. Programa espezifikoak sortzea	91
A9. I4. Lankidetzan lan egitea	91
A9. I4. E1. Lankidetzatza sistematizatzea	91
A10. Kultura berdintasunean	93
A10. I1. Kulturako sortzaile eta langileak balioan jartzea	93
A10. I1. E1. Ikusaraztea	93
A10. I2. Emakumeen sorkuntza babestea	93
A10. I2.E1. Programa espezifikoak sortzea	93
A10. I3. Kultur proiektuetan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea	94
A10. I3. E1. Balioespen-irizpideak sistematizatzea	94
A10. I4. Lankidetzan lan egitea	94
A10. I4. E1. Lankidetzatza sistematizatzea	94
5. Aurrekontu eskakizuna (ikuspegi orokorra)	97
6. kronograma (ikuspegi orokorra)	107
7. Planaren ebaluaziorako oinarritzko plangintza	119
8. Eranskinak	123
I. ERANSKINA. Bitartekaritza kolektiboko proposamena (A1. I1. E1.1.)	124
II. ERANSKINA. Gomendioetarako oinarritzko txantiloia (A1. I1. E2.)	132
III. ERANSKINA. Sistema digitalaren oinarritzko proposamena (A2. I1. E1.)	138
IV. ERANSKINA. Amurrioko kultur komunikaziorako planaren oinarriak (A2. I1. E1.1.) ..	144
V. ERANSKINA. Urteko komunikazio-euskarrirako oinarria (A2. I2. E1.1.2.)	152
VI. ERANSKINA. Oinarritzko jardunerako egutegia (A2. I2. E1.1.2.)	162
VII. ERANSKINA. Publikoen estrategia garatzeko oinarriak (A3. I1. E1.)	166
VIII. ERANSKINA. Plan integralaren garapenerako oinarriak (A3. I3. E1.)	172
IX. ERANSKINA. Proiektuaren ebaluaziorako oinarritzko proposamena (A3. I5. E6.) ..	178
X. ERANSKINA. Urteko deialdirako oinarritzko proposamena (A5. I1. E1.1.)	184
XI. ERANSKINA. Bitartekaritzarako oinarritzko proposamena (A8. I1. E1.)	194





0. Sarrera

Jarraian Amurrioko Kultura Plan Estrategikoa aurkezten da, udalerraren Udalak 2021ean bultzatutako proiektua. Helburua kultur politikak eta horietatik eratortzen diren ekintzak datozen 10 urteetan zehar ardaztea da, hots, 2022 eta 2032 bitarteko epealdian zehar.



1. Metodologia

Hemen aurkezten den plana eratzeko prozesua aktibatu aurretik, Amurrioko Udaleko kultur sailak 2020an diagnosi bat egin zuen. Bertan udalerriko kultur esparrua osatzen zuten eragile ezberdinek azken 10 urtetan garatutako proiektuen (besteak beste, Arte Eskola, Musika Eskola, Herri Musika Eskola, Dantza Eskola, Amurrio Antzokia, Liburutegia, Aiara Dantza Taldea, eta beste hainbat azpiegitura, Erakusketa Aretoa edo elkarte-ehuna kasu) inguruko datu kuantitatiboak zein ondorioak aurkezten ziren. Udalaren ustetan diagnosi hau abiapuntu egokia da Amurrioko Kultura Plan Estrategikoa 2022-2032 eratzeko. Prozesuaren hastapen faseak haren kontsulta du ardatz.

Hemendik aurrera, lana udalerriko kultura eta sorkuntzaren sektorea osatzen duten eragile ezberdinekin bilkurak egitearekin lotzen da¹. Topaketa horiek Udaleko kultur saileko arduradunekin, Plan Estrategikoa diseinatzeko kontratutako enpresarekin eta deitutako erakundeetako arduradunekin egin dira. Topaketa horiek xedea plana eratzeko prozesuaren berri eman eta kultur proiektu bakoitzaren egoerari buruz lehen eskuko informazioa jasotzea da, Plan Estrategikoa egin dezakeen ekarpenari, indibiduala zein kolektiboa, buruzko haien ikuspegia jasotzeaz gain. Bilkurak 2021eko maiatzetik urrira egin dira, eta hauek izan dira deitutako eragileak:

- Amurrio Antzokia.
- Herriko Jaietako Udal Saila.
- Joan de Aranoa arte eskola.
- Musika Eskola.
- Herri Musika Eskola.
- Liburutegia.
- Dantza Eskola.
- Aiara Dantza Taldea.
- Burubio Kultur Elkartea.
- Amurrio Bidean.

¹ Espezifikoki sektoreko parte izan ez arren, ulertzen denez, harekin lotura estua duten beste zenbait barne. Hori da Amurrio Bidean (Amurrioko Udaleko Tokiko Garapenerako Elkartea) elkartearen eta Udaleko berdintasun eta euskara sailen kasua.

- Udal berdintasun saila.
- Udal euskara saila.


Aipatu behar da uztailean bilkura bat egin zela Arabako Foru Aldundiko kultura sailarekin Amurrion burutzen ari den prozesuari buruzko informazioa ematen xedez.

Halaber, urrian saio ireki bat egin zen, Amurrioko kultura eta sormen arloetako eragileei zein, oro har, bertako herritarrei zuzendua. Bertan planaren garapenari egoera, haren ardatzak zein aurreikusitako ildo eta ekintza nagusiak partekatu ziren eta bertaratutako pertsonei² ekarpenak egiteko gonbitea luzatu zitzaien.

Azken erkaketaren ondotik, jarraian zehazten den planaren behin betiko idazketa gauzatu zen.

² Hogei pertsona inguruk parte hartu zuten saioan.





2. Aurretiko kontsiderazioak

Jarraian, dokumentuaren irakurketarako lagungarri izango diren zenbait ohar egiten dira:

- Sarreran adierazten zen eran, Amurrioko Kultura Plan Estrategikoak 10 urteko indarraldia izango du. Baliozkotasun luze horren arrazoia halako dokumentu bat idazteak halako ezaugarriak dituen udalerrri batentzat suposatzen duen inbertsioa ahalik eta gehien optimizatzea da.

Puntu horrekin lotuta, eta dokumentu estrategiko honek legealdi ugari eragingo diela jakinik, adierazi behar da plana eratzeko prozesua Amurrioko kultur arloko udal sailaz arduratzen den politika batzordearekin partekatu dela. Helburua udalbatza osoaren babesa izango zuen estrategia bat izan dadila izan da beti.

- Amurrion kultura eta sormenaren sektorearekin zerikusia duten premia nagusien arteko bat espazioekin dago lotuta: proiektu batzuk birkokatzea, ekipamendu jakin batzuk berregokitzea, azpiegitura berriak bilakatzea... Premiak ezberdinak dira eragilearen arabera, baina gehienak bat datoz espazioarekin lotutako premia honekin, berehala jorratu behar direnen artean. Haatik, dokumentu honetan ez da gai hori jorratuko, ez lehentasunezkoztat jotzen ez delako, baizik eta haren idazketa Amurrioko Udal Ekipamenduen Planaren idazketarekin batera gauzatu delako, non kultura eta sormenaren arloko eragileen premiak jasotzea aurreikusten baita. Horrenbestez, bi dokumentu horiek elkarren osagarri izango direla ulertzen da.

Horri dagokionez, azpimarratu behar da plan honek lehendik dauden lan-ildo batzuk zabaltea edo aldatzea eta proiektu berriak aktibatzea aurreikusten duela. Bi gai horiek lan-espazio balioaniztunak izatea eskatuko dute, diziplina artistiko desberdinen beharrei erantzungo dietenak eta lan-formatu eta -metodologia berriei zentraltasuna emateko gai izango direnak, bereziki ikerketa- eta esperimentazio-

prozesu sortzaileei balioa emanez. Ildo horretan, funtsezkoa izango da horrelako lan-esparruetara Amurrion kokaturiko ekipamendu egokiak eta estrategikoak bideratzea.


- Plan honetan planteatutako ekintzetako bakoitzean "aurrekontu-eskakizunak" izeneko atal bat aurkitu ahal izango da. Haren garapenak suposa lezakeen kosturako hurbilketa bat da. Aurrekontu-eskakizuneko 5 maila bereizi dira:
 - Oso baxua: < 1.000€.
 - Baxua: < 5.000€.
 - Ertaina: < 15.000€.
 - Handia: 15.000€ - 30.000€.
 - Oso handia: > 30.000€.

Plan honetan ezarritako helburuak lortu edo ez lortzea hark aurrekontu aldetik duen horniduraren baitan egongo da, ez eskusiboki, baina bai hein handi batean. Horri dagokionez, Amurriok plana berezko baliabideekin ekonomikoki hornitzeaz gain, kanpoko baliabideen bilaketan gogotik egin beharko du lan (horretarako, ziurrenera, egungo kudeaketa-taldeak laguntzeko giza baliabideetan inbertitu beharko du).

Era berean, plan hau Amurriok aurreikusitako helburuak lortzen lagun dezaketen inguruko beste erakunde eta entitate batzuekin lankidetzan lan egiteko konfiguratuta dago. Ildo horretan, nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela hurbileko erakundeekin konplizitateak ezartzea, Europako finantzaketa bilatzera bideratutako arloak edo sailak badituzte, udalak testuinguru horretan kultura- eta sormen-sektorerako dauden aukerak azter ditzan lagundu ahal izateko.

- Plana baterako egitura baten inguruan ardaztuta badago ere, ardatz batzuen badira zenbait ezberdintasun. Jarraian ardatz horiek zein diren eta zein helburu duten zehazten da:
 - 3. ardatza osorik (A3) eta 4. ardatzeko (4A) 1 eta 2 (A4.I1) ildoak. Kasu hauetan "2032. urteari begirako Ikuspegi" bat eta "2022ko egoera" bat barneratu dira, eta horiek beste ardatz batzuetan ez dauden atalak dira. Hori, alde batetik, mintzagai diren proiektuen etorkizun idealaren marrazki argi bat helarazteko helburuarekin egin da eta, beste alde batetik, dokumentu honetan eragileekin izandako elkarrizketetatik ateratako ondorio nagusiak islatzeko xedez.

- 4. ardatzeko (A4) 3. Ildoa (A4. I3). Atal honi dagokion edukia Udalak 2021ean Amurrion dauden elkarte ezberdinetako pertsona arduradunekin egindako bilkura-txanda baten ostean egindako ondorioen txostenetik abituaz eratu da. Horrenbestez, dokumentu honetan islatzen diren premiak gaurkotasunarekin lotzen dira, hau da, 2021. urtearekin. Beraz, hemen planteatzen daitekeenetik harago gomendatzen da elkarte-ehunaren jarraipen erregular bat egiten jarraitzea da, dauden kolektiboak babestuz eta berrien balizko sorrera bultzatuz. Ildo honen berezitasuna dela eta, planean ez dira kronograma indibidualak jasotzen (nahiz eta horiek "Kronograma (orokor)" izeneko atalean islatzen diren).
- Planeko 4. ardatza (A4) zerbitzu publikoko deiera duten herritarren ekimenei buruzkoa da. Horien barruan Aiara Dantza Taldearen eta Burubio Kultur Elkartearen presentzia nabarmentzen da, udal egiturek 2021ean artatu ezin dituzten alderdi garrantzitsuak jorratzen dituzten proiektu estrategikotzat hartzen baitira. Ez da baztertzen etorkizun batean estrategikotzat jotzen diren egitura horiek aldatu edo areagotzea; ehunak izango dezakeen bilakaeraren, herritarren sustapenerako proiektuetan artatzen diren esparruen eta Udalaren beraren jardunarekiko duten osagarritasun-mailaren baitakoa izango da hori.



3. Nortasuna, erronkak, misioa eta ikuspegia

Amurrioko Kultura Plan Estrategikoa 2022-2032 da:

- Leiala.
Planaren helburua, indarguneak ez ezik, Amurrioko kulturaren sektoreak, oro har zein proiektu edota eragile indibidual bakoitzari dagokionez, aurrez aurre dituen zailtasunak mahai gainean ipintzea da.
- Irekia.
Covid-19 pandemiaren erdian idatzia, plan hau sortzean gauza jakina da 10 urtetan gizartean egon daitezkeen aldaketak ugariak eta aurreikusi ezinak direla. Hala, dokumentu hau etorkizuneko gizarteak behar ditzakeen neurri berriei irekita idatzi da.
- Mailakagarria.
Planak pixkanaka, eta beti aurretiaz dauden baliabideekiko koherentzian, txertatzeko pentsatuta dauden ekintza sorta bat aurreikusten du.
- Osagarria.
Aurreko ataletan aipatu den moduan, plan hau aldi berean eratzen ari den ekipamenduen udal plan berriarekiko osagarri izatea pentsatuz sortua da.
- Garaikidea.
Planaren helburuetako bat Amurrioko kultur politika eta proiektuak egungo gizartearen premiekin lerrokatzea da, lengoaia eta adierazpen artistiko berrien alde eginez eta sektorean lan egiteko formatu eta metodologia berriak babestuz.

- Tokikoa.

Amurrio es la prioridad del plan, el apoyo a sus creadores/as y a su sector cultural, así como el impulso de medidas que promuevan una ciudadanía creadora, espectadora y participante de la vida cultural de su localidad.

- Zeharkakoa.


Plan honetan kultura eta arteak berezko balioa duten esparruzat ulertzen dira, baina baita gizartearen garapen iraunkorraren eta eraldaketaren alde beste batzuekin elkarlanean aritzeko ahalmena duten sektore modura ere.

Hala, Amurrioko Kultura Plan Estrategikoak (2022-2032) erronka hauek ditu:

- Sortzaile, ikus-entzule, parte-hartzaile eta erabakitzailea izango den herritartasun bat bultzatzea, Amurrion nahiz eskualdean.
- Tokiko testuinguruko sortzaileak babestea.
- Proiektu publikoak erreferentziazko kultura espazio modura sendotzea.
- Amurrion, kulturaren eta sormenaren sektorean, jardun profesionala garatzeko aukera ematen duen testuinguru bat sortzen laguntzea.
- Eragile publiko zein pribatuei baterako kultura proiektu bat sortzeko baliabideak ematea.
- Kultura balioan jartzea beste esparru batzuetan (gizartea, osasuna, ingurumena, ekonomia, etab.) eragina izan eta haiekin kolaboratzeko ahalmena duen esparru gisa.


Planaren funtsezko misioa Amurrioko kultura politikari esparru estrategiko bat ematea da, alde batetik, sektore publiko nahiz pribatuan erreferentzia modura baliagarri izango den baterako jomuga bat finkatuz eta, beste alde batetik, ehunaren parte diren eta izango diren proiektu eta eragileak bakarka garatzen laguntzeko aukera emango duten ekintzak lehenetsiz. Dokumentu honetatik abiatuz garatzen denaren gidaritzan zenbaitetan Udala egon daiteke, hura baita plan honen idazketa bultzatzen duena. Dena den, kolektibotasuna aintzatetsiz egingo da. Horrela, beharrezkoa den prozesu orotan herritarren ikuspegiak jasoko dira, eta baita eragileena ere, indibidual eta kolektiboena, publiko zein pribatuena.

Planaren ikuspegia kultura, artea eta sormena Amurrioren bihotzean lekutzea da, bertako biztanleen bizitza aberastuz, indibidualki zein kolektiboki, eta udalerriaren garapenaren parte aktibo izanik. Amurriok izaera ezberdineko kultura eta sormen proiektuak hartuko ditu, eta euskara ardatz nagusitzat izango duten ekimenak sortu eta sendotzeaz kezkatuko da. Halaber, udalerrriak ausart jotzeko du kultura proposamen, formatu, metodologia eta ideia berriak babesteari dagokionez. Gainera, arte eta kulturarekiko irisgarritasuna bermatze aldera, udalerrriak publikoak erdigunean kokatuko ditu, audientziak garatzeko lana ezinbesteko pieza modura txertatuz proiektuen kudeaketan. Ildo horretatik, haurrak eta gazteak lehentasunez artatzeko segmentuak izango dira, arrazoi ezberdinak direla medio, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsona edota kolektiboekin batera. Plan honen esparruan garatzen diren ekintza guztiek berdintasun-politikekin koherentzia gordeko dute.



4. Ardatzak, ildoak eta ekintzak

Amurrioko Plan Estrategikoa (2022-2032) 10 ardatzekin (A) osatzen da. Horietako bakoitza ildo (I) ezberdinekin eratuta dago, aldi berean, ekintzetan (E) banakatzen direnak.



E1. Kohesioa eta koordinazioa.

Amurrioko kultura eta sormenaren arloko eragileen arteko loturak sortu eta sendotzea.

A1. I1. E1. Topaketarako aldeko testuinguru bat sortzea.

Izaera ezberdineko kultura eta sormenaren arloko eragileek maiztasunez elkar ikusteko eta horietako bakoitzak bultzatutako proiektu eta ekimenak ezagutzeko aukera ematen duen lanerako metodologia bat finkatzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

A1. I1. A1.1. Bitartekaritza kolektiboko proposamen bat sortzea³.

Eragileen artean bitartekaritza arloko lankidetzaproiektu bat sortu eta sendotzea, aurretiaz dauden programako proposamenetatik abiatuz. Helburu orokorrak:

- Kultura arloko eragile kolaboratzaileen sare bat sortzea.
- Eragile bakoitzaren ekimen indibidualak gainerakoen jardunera eramatea.
- Komunikazio-ekintza indibidualak indartzea, berezko ahotsa sortuz.
- Bitartekaritza Amurrioko kultura proiektuko funtsezko ardatz gisa kokatzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina **Handia** Oso handia

³ Bitartekaritza kolektiboko oinarrizko proposamena izaneko I. eranskinean jaso.

A1. I1. E2. Kultur eragile pribatuen, herritarren ekimenen eta udalaren arteko harremana bultzatzea⁴.

Kultura-ehunera zein udal esparrura bideratutako baliabide ezberdinak sortzea (gomendio orokorrak⁵, lantaldeak, dibulgazio-materialak, prestakuntza-saioak, aholkularitza-programak, etab.), bi aldeen arteko harremanak errazte aldera.

Kronograma




Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia

⁴ Zehazki, Kultura sailaren eta hertsiki lotutako beste batzuen artean (Gazteria, Hirugarren Adina, Euskara).

⁵ Gomendioetarako oinarritzko txantiloia izeneko II. eranskinean jasoa.



A2. Publikoak eta komunitateak sortu eta sendotzea.

A2. L1. Publikoak erdigunean kokatzea.

Pertsona erdigunean kokatuko duten politikak eta kultura ekimenak diseinatzea, herritarrek kultura arloan dituzten eskaera eta interesei erantzuna emateko zein erronka edo berritasun izango diren proiektu eta esperientziak eskaintzeko helburuarekin.

A2. I1. E1. Audientziak komunikatu eta garatzeko datuak zentralizatzea.

Honakoak ahalbidetuko dituen sistema digital⁶ bat aktiba dadila bultzatzea:

- Udal mailan datu-base (DB) bakar bat sortzea, Amurrion kultura partaidetzari buruzko informazioa zentralizatzeko aukera emango duena.
- Elkarlotutako kanal ezberdinen bidez komunikazio-ekintzak garatzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina **Handia** Oso handia

A2. I1. E1.1. Datu-baseen ustiapena ahalbidetzea.

Datu-basea aztertu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak erabilgarri izatea eta, irakurketa horretatik abiatuz:

- Audientzia/publikoen garapena lantzea:
 - Artatzeko lehentasunezko publikoak zehaztuz.
 - Aurretiaz dauden edota balizkoak diren ekimen, proiektu, programa, irisgarritasun-baldintzei buruzko erabakiak hartuz.
- Komunikazioa lantzea:
 - Amurrioko kultura arloko komunikazio-plana uneko errealitatera egokituz⁷.

6 Sistema digitalaren oinarritzko proposamena izeneko III. eranskinean jasoa.

7 Amurrioko kultur komunikaziorako planaren oinarriak izeneko IV. Eranskinean jasoa.

Kronograma

2022 2023 2024 2025 2026 2027 2028 2029 2030 2031 2032

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina **Handia** Oso handia

A2. I2. Haur eta gazteei arte eta kulturarako sarbidea bermatzea.

Amurrioko haur eta gazteek udalerriko kultura proposamenekin baldintza egokitan eta eduki aproposekin goza dezaten eta haietan parte har dezaten beharrezkoak diren baliabideak erabilgarri izatea.

A2. I2. E1. Trabajar con los centros educativos.

Ikastetxea haurrak arte eta kulturarako irisgarritasuna izatea bermatzeko eremu modura balioan jartzea.

A2. I2. E1.1. Heziketa eta kulturaren topaketarako aldeko testuinguru bat sortzea.

Hezkuntza arloko komunitatea maiztasunez⁸ elkar ikusteko eta horietako bakoitzaren proiektu, ekimen eta interesak ezagutzeko aukera ematen duen lanerako metodologia bat finkatzea.

Kronograma

2022 2023 2024 2025 2026 2027 2028 2029 2030 2031 2032

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

A2. I2. E1.1.2. Kultur eskaintza eta komunikazio-ekintza zentralizatzea.

- Eragile publiko eta pribatuek ikastetxeetarako diseinatu duten⁹ kultura eskaintza zentralizatuko duen urteroko komunikazio-euskarri bat bultzatzea.

⁸ Komunitate hartan zuzendaritza-taldeak, irakasleak eta guraso-elkarteak sartzen direla ulertuta.

⁹ Urteko komunikazio-euskarriko oinarria izeneko V. eranskinean jaso.

- Zentro bakoitzeko hezkuntza-komunitatearekin komunikazio-ekintza pertsonalizatu bat egin ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak erabilgarri izatea, euskarri hori hartu eta ulertu egiten dela bermatzeko moduan¹⁰.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia

A2. I2. E2. Familientzako kultur proposamenak bultzatzea.

Familiei zuzendutako kultura ekimen sorta bat egon dadila bermatzea, elkarren artean osagarria, adin ezberdinetako haurrak artatzea ziurtatuz (Haur Hezkuntza barne).

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** **Ertaina** Handia Oso handia

A2. I3. Pertsona eta kolektibo zaugarriak integratzea.

Bazterkeria arriskuan diren pertsona eta kolektiboak Amurrioko kultura bizitzan parte har dezaten ahalbidetzea.

A2. I3. E1. Gizarte erakunde / baliabideekin kolaboratzea.

Dagokion gizarte-erakundearekin lanerako dinamika erregular bat finkatzea, kulturatik abiatuta, beren asistentzia-programak babesteko xedez.

¹⁰ Laneko prozesu hori egituratzeko oinarrizko egutegia izaneko VI. eranskinean jasoa..

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua (Baxua) Ertaina Handia Oso handia

A2. 13. E2. Kultur bitartekaritzako proiektu espezifikoaren garapena ahalbidetzea.

Esparru publiko edo pribatutik datozela ere, helburu zehatz modura artea eta kultura abiapuntutzat hartuta pertsona / kolektibo zaurgarriekin lan egitea duten proiektuen garapena ahalbidetzea.

Kronograma

(2022) (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua (Ertaina) Handia Oso handia

A2. 14. Kultur bizitzarako sarbidea bermatzea.

Kulturan parte hartzeari dagokionez egon daitezkeen hesietan etengabe erreparatzea eta horiek baztertzeko beharrezkoak diren mekanismoak aktibatzea.

A2. 14. E1. Entzutea eta jardun aktiboa.

Udalean entzuteko eta irtenbideak bilatzeko jarrera positibo bat izatea, Amurrioko kultura eragileek beren proiektuetan parte hartzerako orduan pertsona / kolektibo jakin batzuentzat hautematen dituzten balizko hesien gaia jorratzeko aukera emanez.

Kronograma

(2022) (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

(Oso baxua) Baxua Ertaina Handia Oso handia

A2. 14. E2. Landa-eremuari arreta.

Amurrioko administrazio-batzarrekin hitzarmenak idaztea, horietan bizi diren pertsonen kulturen parte hartzeko baldintza egokiak ezar daitezzen.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua (Baxua) Ertaina Handia Oso handia

A2. 15. Proiektu, esperientzia eta formatu berritzaileak bultzatzea.

Testuinguruan ohikoak ez diren proposamenak egiten dituzten ekimenen aurrean jarrera irekia eta lagunkoia izatea.

A2. 15. A.1. Proposamen ezberdinak egon daitezen bultzatzea.

Tokiko eragile edota tokikoak ez diren eragileek bultzatuta, Amurrion jadanik garatzen diren ekimen artistiko eta kulturekin lotuta bereizgarri diren ekimenen garapena bultzatzea.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua (Baxua) (Ertaina) Handia Oso handia

A2. 16. Espazio publikoa kulturarako espazio modura bultzatzea.

Espazio publikoa formatu berriekin esperimentatzeko, herritarrekiko hurbiltasunari begira aurrera egiteko eta testuinguru jakin batzuk biziberritzeko (horiek erabilera berriekin hornituz) gakoa den leku modura aintzatestea.

A2. I6. E1. Baldintzak ahalbidetzea.

Espazio publikoa erabiltzen duten kultura ekimenak, publiko edota pribatuak, gara daitezela ahalbidetzea. Horrek eragina izango du alderdi hauetan:


- Baimenen kudeaketa arina.
- Erraztasun logistikoak.
- Espazio publikoan osorik edo zati batean egiteko garatzen diren proiektuei arreta bereziz erreparatzea.
- Sortzen diren proiektu berrietan alderdi hori barneratzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia



A3. Eskolak eta udal ekipamendu kulturalak.

Arte eskola / udal ekipamenduen premia espezifikoak artatzea¹¹.

E3. L1. Amurrio Antzokia¹².

Ikuspegia 2032. urtera begira

Amurrio Antzokia. Kulturaren erreferentziazko espazioetako bat da herrian. Urteen poderioz, bere proiektuarekin inplikaturiko dagoen komunitate bat sortzea lortu du eta, denboraldiz denboraldi, horren ohikoak ez ziren arren Amurriorako estrategikoak diren publiko espezifikoekin (pertsonek migratzaileak, gazteak, adin nagusikoak, etab.) lotura berriak sortzen eta sendotzen jarraitzen du.

Amurrio Antzokiaren helburu nagusia bertako publikoak kulturarekin goza dezala da, eta horretarako eskatzen dena eta bertako taldeak komunitateari so interesgarritzat jotzen dituen proposamenak tartekatzen dituen programazio bat eskaintzeko egiten du lan.

Antzerkia, dantza eta musika dira bere jardun nagusiaren ardatz diren adierazpen artistikoak. Haatik, Amurrio Antzokiak zinema-programazioa ere eskaintzen du eta diziplinarteko proposamenetara irekia dago.

Bere jarduera arruntaren zati bat erakusketa izaki, bitartekaritza-proiektuak ere funtsezkoak dira espazio horretan. Horrela, Amurrio Antzokiak izaera ezberdineko jarduera paraleloak eskaintzen ditu bertako publikoentzat (elkarrizketak sortzaileekin, entsegu irekiak, prestakuntza-jarduera, etab.), bertako espazio barruan nahiz kanpoan gertatzen direnak.

Gainera, Amurrio Antzokiak maiztasunez parte hartzen du eragile kolaboratzaile modura sormen eszenikoen ekoizpenean.

Horrez gain, Amurrio Antzokiak ohikotasunez kolaboratzen du herriko beste kultura egitura batzuekin, eta baita herriko ikastetxeekin ere. Hala, herriko ekosistemaren barnean eragile aktibo bat da.

Amurrio Antzokiaren publikoen strategiaren barnean hainbat alderdi elkartzen dira: proiektuaren estrategia orokorrarekiko koherentzia, bere datu-baseen eta komunikazio-ekintzen azterketa eta ekintza ezberdinen bidez (inkestak, focus group taldeak, behaketa, bat-bateko elkarrizketak) jasotako feedbacka.

Proiektuak ezagutzaren gardentasunerako barneko sistema bat du.

11 Planak, beste ardatz batzuetan, bereziki, A1 eta A2 ardatzetan, atal honetan sartzen diren eragile guztiengan eragina duten ildo eta ekintzak jasotzen ditu. Hori modu orokorrean jorratzea erabaki diren baterako premiak identifikatzearen ondorio da.

12 Udal kudeaketa zuzenean.

Egoera 2022an

Indarguneak

- Kalitatezko eszenatokia eta eskualdean parerik gabea, adin-tarte ezberdinei zuzendutako antzerki, dantza, musika eta zinemako programazio erregular bat eskaintzen duena.
- EAE barneko programazio / zirkuitu sareetan txertatuta dagoen proiektua da.
- Proiektu sendoa da, biztanle askorentzat erreferentea, tokiko eragileek ezagutu egiten dute eta harreman egonkorra mantentzen da gainera eragile horiekin eta kolaborazioak egiten dira haiekin maiz.
- Datu-baseak (nahiz eta zentralizatuak ez izan eta elkarren artean loturarik ez izan) eta komunikazio-kanalak ditu proiektuak, harrera ona dutenak.
- Arduradunak oso ongi ezagutzen du proiektua eta udalerrria.
- Lantalde teknikoa egonkorra (kanpokoak izan arren) eta ekipamenduaren inguruan ezagutza handikoa da.
- Proiektuak jarrera irekia du lan / ekintza ildo berriak aktibatzearen aurrean.

Asmoak

- Hurrengo esparruak estrategikoki planifikatzea:
 - Publikoen garapena.
 - Komunikazioa.
 - Bitartekaritza.
- Proiektuaren inguruko ezagutza kritikoa dokumentatzea beharrezkoa izanez gero gardentasuna bermatze aldera.
- Alderdi hauetara bideratutako proposamenak areagotzea:
 - Bitartekaritza.
 - Elkarren arteko ekoizpena.
- Laguntzaileak izatea, bereziki arestian aipaturiko lan-esparruekin lotuta.




Ekintzak

A3. I1. E1. Publikoen garapena planifikatzea.

Honakoak barneratuko dituen publikoen estrategia bat¹³ diseinatu eta txertatzea:

- Publikoen eta horiekin lotutako helburu espezifikoaren segmentazioa.
- Datu-base zentralizatua, A2 ardatzean planteatutakoarekin koherentzia mantenduz. I1. E1.
- Lan-esparru ezberdinetatik datozen proposamenekin osatutako ekintza-plana, esate baterako:
 - Erakusketa.
 - Bitartekaritza.
 - Komunikazioa.
 - Kolaborazioa tokiko eragileekin.

Kronograma




Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** Handia Oso handia

A3. I1. E2. Zuzeneko obren tokiko ekoizpena babestea.

Urteko aurrekontu bat esleitzea tokiko sortzaile / kolektiboak laguntzeko zuzeneko obra baten garapenean.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** Handia Oso handia

A3. I1. E3. Lantaldea sendotzea.

A3. I1. E3.1. Giza baliabideak indartzea.

¹³ Publikoen estrategia garatzeko oinarriak izeneko VII. eranskinean jasoa.

Amurrio Antzokiko arduradunari alderdi hauetan laguntzeko langileak gaineratzea:

- Datu-baseen eguneraketa eta haietatik etorritako analisia egitea.
- Bitartekaritzako ekintza motak txertatzen laguntzea.
- Komunikazio-ekintzetan laguntzea (plangintza, diseinu grafikoa, edukien sorrera, trafikoaren analisia, etab.).

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** **Handia** Oso handia

A3. I1. E3.2. Kanpoko laguntzak bermatzea.

Proiektuaren egoerarekin bat etorritik, emandako zerbitzuaren kalitatea eta enpresa hornitzaileerako nahiz kontratatutako langileentzako baldintza onak bermatuko dituzten kanpoko kontratazioak ziurtatzea.

Kronograma

(2022) (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** **Handia** Oso handia

A3. I1. E3.3. Etengabeko prestakuntza ahalbidetzea.

Esparru ezberdinetan (programazio arloko joerak, bitartekaritza-proiektuak, kudeaketa-estrategiak, etab.) Amurrio Antzokiarekin arduratzen den lantalde profesionalaren etengabeko prestakuntza ahalbidetzea.

Kronograma

(2022) (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia

A3. I1. E4. Ezagutza kritikoa dokumentatzea.

Behar izanez gero, proiektuaren bideragarritasunari begira funtsezkoak diren alderdietan gardentasuna bermatzeko lanerako metodologiak ezartzea.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua (Baxua) Ertaina Handia Oso handia

A3. I2. Joan de Aranoa arte eskola¹⁴.

Ikuspegia 2032. urtera begira

Juan de Aranoa Udal Prestakuntza Artistikoko Programak¹⁵ arte eta artisautzako diziplinetako prestakuntza-eskaintza bat du, beren ezagutza teknikoa eta gaitasun sortzailea areagotu asmo duten pertsonen zein sormen-lengoaia berriekin esperimentatu nahi duten pertsonen iguripenak aintzat hartzen dituen. Halaber, proiektuak, artearen eta artisautzaren bidez, beren lotura sozial eta komunitarioak aberastu nahi dituzten pertsonak aintzatesten ditu.

Programak proiektuarekin konprometituta dagoen irakasle-talde bat du, prestakuntza-lanarekin ez ezik, proiektuaren garapenarekin, orokorrean, arduratzen dena. Eskolako irakasleen lana aitortutako lan bat da eta beharrezkoak diren baldintzak dituzte elkarren artean koordinatu eta beren prestakuntza-eskaintza arruntaren osagarri diren ekintzak ebaluatu, komunikatu eta diseinatzeko, eta baita estrategikoki hala eskatzen duten alderdien inguruan prestakuntza jaso eta horiek birdoitzeko.

Programaren jarduera udalerriko espazio ezberdinetan garatzen da eta beti haren barruan eskaintzen diren prestakuntza ezberdinetako premia eta ezaugarriekin koherentzia mantenduz. Gainera, Amurrioko beste kultura egitura batzuekin lankidetzan garatzen da programa ohikotasunez, eta baita udalerriko beste ikastetxe batzuekin ere. Modu horretan, udalerriko ekosisteman eragile aktibo bat da.

¹⁴ Udal kudeaketa zuzenean.

¹⁵ Haren izena aldatu egiten da Juan de Aranoa "Udal Arte Eskola" izatetik "Udal Prestakuntza Artistikoko Programa" izatera igaroz.

Egoera 2022an

Indarguneak

- Proiektuak arte eta artisautzako jardunera sartzeko aukera ematen du, adin guztietako pertsonei zuzendutako hurbiltasunezko baliabide batetik abiatuz.
- Espazioak ikasleen gizarte-harremanak ahalbidetu eta beren ongizatea sustatzen du.
- Proiektu sendoa da, bertako biztanle askorentzat erreferentea eta tokiko eragileentzat ezaguna.
- Esperientziadun irakasleak ditu, proiektuaren, ingurunearen eta ikasleen inguruan ezagutza asko dutenak.
- Belaunaldien arteko harremanak sustatzen dituen proiektua da.

Asmoak

- Organigrama, estrategia-proiektu eta ebaluazio-sistema bat izatea.
- Bertako lantaldearen lanordu kopurua areagotzea prestakuntza-jardueraren osagarri diren alderdietan aritzeko.
- Irakasleen arteko lan-baldintzak berdindu eta egonkortzea.
- Mailaka diseinatutako eta ikasleen iguripen ezberdinetara egokitutako egitura duen prestakuntza-eskaintza bat sortzea.
- Proiektuak bere jarduera garatzeko duen espazio fisikoa optimizatzea, baldintza egokiak betetzen dituen ekipamendu bakar bat izatea ezinezkoa izateagatik egokituz jotzen baldin bada hura deszentralizatuz.
- Proiektuaren eta Udalaren arteko harremanak optimizatzea.

Ekintzak

A3. I3. E1. Proiektua egungo premietara egokitzea.

“Juan de Aranoa Arte Eskola” “Juan de Aranoa Udal Prestakuntza Artistikoko Programa” bilakatzea, hura¹⁶ prestakuntza-proiektua zein harekin lotutako beste alderdi zenbait berrikusiko dituen plan integral batekin hornituz.

Kronograma

2022 2023 2024 2025 2026 2027 2028 2029 2030 2031 2032

¹⁶ Plan integralaren garapenerako oinarriak izeneko VIII. eranskinean jasoa. Gaur egun Eskolarekin lotutako lantaldeak, kanpoko laguntzarekin, eratutako plana.


Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina**¹⁷ Handia Oso handia

A3. I3. I1.1. Lan-baldintza egokiak ahalbidetzea.

Barneko lantaldearen egungo kontratuak eta proiektuarekin lotutako langile autonomoen baldintzak egokitzea, proiektu berria behar bezala eratu eta txertatzea bermatze aldera.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina**¹⁸ Handia Oso handia

A3. I3. Musika eskola¹⁹ eta Herri musika eskola²⁰.

Ikuspegia 2032. urtera begira

Amurrioko Udal Musika Eskolak instrumentu ezberdinak jotzeko prestakuntza-eskaintza bat du, kutsu folklorikoa dutenak barne; hori guztiori *Amurrioko udalerrian kultura musikala sustatu eta bultzatzeko Zerbitzuko fundazio Publikoaren* barnean. Bere zerbitzuak aukera-berdintasuna ardatz hartuta eskaintzen ditu, hala herriko auzotarrei nola eskualdeko gainerako biztanleei begira.

Bere jardun pedagogikoaz gain, Eskolak jarduera osagarriak ere eskaintzen ditu. Aipatu Jarduera osagarrien programaren diseinuan irakasleek, ikasleek, familiek eta interesa duten beste zenbait pertsona edota eragilek parte hartzen dute.

Udal Musika Eskolak ohikotasunez kolaboratzen du Amurrioko beste kultura egitura batzuekin, eta baita herriko ikastetxeekin ere. Hala, herriko ekosistemaren barnean eragile aktibo bat da.

17 Plana eratzeko kanpoko laguntzaren kontratazioarekin lotutako aurrekontu-eskakizuna.

18 Egungo langileen kontratazio-orduak areagotzearekin lotutako aurrekontu-eskakizuna.

19 Kudeaketan autonomia den udal fundazioa.

20 Kanpo kontratazioa.

Egoera 2022an

Indarguneak

- Proiektuak²¹ musikaren jardun artistikora sartzeko aukera ematen du, adin guztietako pertsoneri zuzendutako hurbiltasunezko baliabide batetik abiatuz.
- Udal Musika Eskolak Ikasketa Plan arautu bat du.
- Herri Musika Eskolak estrategia-proiektu integral bat du.
- Proiektu sendoak dira, bertako biztanle askorentzat erreferentea eta tokiko eragileentzat ezagunak.
- Irakasleak espezializatuta eta bi proiektuekin konprometituta daude.
- Arduratsuak dira, etorkizunean egon daitezkeen aldaketen aurrean irekian, horien artean, Udal Musika Eskola eta Herri Musika Eskolako proiektuak integratzeari begira.
- Udal Musika Eskolak barne kudeaketako informatika-sistema bat du, bere komunikazio-jardunaren zein bere jardunari buruzko datuak (ikasleak, hornitzaileak, etab.) zentralizatzeko aukera ematen diona.

Asmoak

- Irakasleen lanorduak berdintzea, plan hau egin zen egunez matrikulazio kopuruaren arabera dagoena.
- Baterako metodologia pedagogiko bat adostea, Udal Musika Eskolaren nahiz Herri Musika Eskolaren ikuspegiak barneratuko dituen, balizko uztartze baten aurrean.
- Eskualdeko administrazioekin hitzarmenak sinatzea, inguruko auzotar guztiei zerbitzuak aukera-berdintasunean eskaini ahal izateko.
- Ikastetxeekin, gizarte-bazterkeria arriskuan diren pertsona edota kolektiboekin eta kultura arloko beste eragile batzuekin harremana sendotzea.
- Proiektuak bere jarduera garatzeko duen espazio fisikoa optimizatzea, baldintza egokiak betetzen dituen ekipamendu bakar bat izatea ezinezkoa izateagatik egokitzat jotzen baldin bada hura deszentralizatuz.
- Komunikazio-plan bat izaten eta proiektua balioan jartzea.

Ekintzak

A3. I3. E1. Proiektu bakar bat sortzea.

Udal Musika Eskola eta Herri Musika Eskola uztartzea, modu horretan, Amurrioko musikaren alorreko irakaskuntza proiektu bakarrean zentralizatuz.

²¹ Hala Udal Musika Eskola nola Herri Musika Eskola aipatuz, plan hau egin zen egunez, artean elkarren artean independenteak ziren proiektuak.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** **Handia** Oso handia

A3.13. E2. Lantaldea sendotzea.

Lantaldeak proiektua bere potentzial osoan garatu ahal izateko lan-baldintza egoki batzuk ezartzea. Baldintza horiekin alderdi hauek burutzeko aukera izango da:

- Urteko planak eta ebaluazio-sistemak diseinatzea.
- Etengabeko prestakuntza.
- Jarduera osagarriak bultzatzea eta tokiko eragileekin kolaboratzea.
- Ikasleak eta familiak aldez aurretik aipaturiko jardueren diseinuan nahasteko partaidetza-prozesu bat sistematizatzea.
- Publiko espezifikoekin (esate baterako, pertsona gazteak) lotura lantzeko ekintza zehatzak garatzea.
- Proiektuaren berri eman eta hura balioan jarriko duten komunikazio-ekintzak garatzea.

Kronograma

2022 2023 (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina **Handia** **Oso handia**

A3.14. Dantza-eskola²².

Ikuspegia 2032. urtera begira

Amurrioko Dantza Eskola erreferentziazko proiektu bat da bere arloan, hala udalerrirako nola eskualdeko gainerako eremuetarako. Balet klasikoan prestakuntza jasotzeaz gain, bertako ikasleek beste hainbat alderdi lantzen dituzte, esate baterako, gorputzaren gaineko kontzientzia, emozioen kudeaketa, gaitasun artistikoa eta sormenezkoa, musikaltasuna, irudimena, jolasa eta dibertsioa. Orobat, Dantza Eskolako ikasleek dantzarekin ez ezik, oro har artearekin lotutako ezagutzak eskuratzen dituzte.

²² Kanpo kontratazioa.

Amurrioko Dantza Eskolan orotariko ikasleak daude: familiak inskribatuko haurretatik hasi eta baletarekin Eskolak udalerriko eta eskualdeko ikastetxeetan zein beste espazio kultural batzuetan maiztasunez burutzen dituen sozializazio-ekintzen bidez interesatzen diren ikasleetara arte. Dantza Eskolak zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleek matrikulatu ahal izateko laguntza-programa bat du.

Ikasleei zuzendutako prestakuntza-jardun erregularraz eta ikasle berriak erakartzeko ekintzez gain, Dantza Eskolak urtean zehar bitartekaritza-programa bat burutzen du beste eragile batzuekin lankidetzan eta interesa duen edonori zuzendua (helduei ere bai). Monografikoak, solasaldiak adituekin, entsegu irekiak, kale-ekintzak edo bide digitalak erabiliz interesgarriak diren edukiak hedatzea dira publikoari irekita dagoen ibilbide hori osatzen duten ekintzetako batzuk.

Dantza Eskola Amurrion publiko eszenikoen sorrerarekin konprometituta dagoen proiektu bat da. Horretarako, bere Antzokiarekin kolaboratzen du hertsiki; elkarrekin, bi eragile horiek herriko programazioan dantzaren presentzia areagotu nahi dute, esperientzia eszeniko hori aberastuko duten ekintza paraleloak sortzearekin batera.

Kudeaketari dagokionez, Dantza Eskolak autonomia du bere laneko espazioa kudeatzeko. Era berean, dantzan eta prestakuntzan espezializatuta dauden profesionalen osatutako talde bat du, herrian eragin positiboa sortzeko ahalmena duen proiektu bat garatzeko baldintza egokiekin. Hala eskatzen duten alderdietan, Eskolak udal baliabideen laguntza du, Udaletik kudeatzen den datu-basea barne.

Proiektuak ezagutzaren gardentasunerako barneko sistema bat du.

Egoera 2022an

Indarguneak

- Udalerrian eta eskualdean parerik ez duen prestakuntza-proiektua. Prestakuntza espezializatua eskaintzen du balet klasikoan, arteko diziplina hori burutzeko garrantzitsuak diren alderdi ezberdinetan erreparatuz.
- Proiektua publiko eszenikoak orokorrean eta dantzakoak zehazki sortzeko lagungarri da.
- Lantalde profesionala etengabeko harremanean da nazioarteko sektorearekin eta Amurrioko proiektuarekin konprometituta dago.
- Proiektuak jarrera irekia du lan / ekintza ildo berriak aktibatzearen aurrean.

Asmoak


- Hartzen duen lekua (2022an kiroldegia) kudeatzeko berezko espazio edota autonomia izatea.
- Herriko ikastetxeekin loturak sendotzea.
- Berezko komunikazio / dokumentazioa kudeatzeko bide eta baliabideak (teknikoak eta pertsona aldetikoak) izatea.
- Herriko beste kultura eragile batzuekin lankidetzan egonkor bat finkatzea.
- Udalarekin kontratu bat izatea, proiektua behar bezala garatzeko behar besteko baliabidez hornitua eta Eskolak epe luzera izango duen inpaktua proiektatzeko aukera emango duen iraupen luzeago batekin.

Ekintzak

A3. I4. E1. Espazioa edota haren kudeaketa egokitzea.

Dantza Eskolaren proiektua espazio egoki batean garatzeko aukera, beharrezkoa balitz, egun erabilgarri denaren osagarri izango diren lekuak bilatuz²³. Halaber, proiektuaz arduratzen diren pertsonak beharrezkoak diren baliabide berrietarako eskuragarritasun eta erabilerari dagokienez autonomoak izateko baldintzak hobetzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia

A3. I4. E2. Esleipen-kontratuan baldintza egokiak bermatzea.

Proiektuaren premiekin eta udal baliabideekin koherentzia mantenduz, esleipen-kontratuko aurrekontu-baldintzak mantendu eta hobetzea, eta azken hori proiektuaren inpaktu positiboari so mesedegarrien den izaera tenporalera egokitzea.

²³ Preferentemente escénicos, como el Amurrio Antzokia.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** Handia Oso handia

A3. I4. E3. Langileak gaineratzea.

Dantza Eskola, osorik edo hein batean, proiektuko dokumentazioarekin, komunikazioarekin eta ebaluazioarekin lotutako alderdietan lagunduko duen pertsona bat gaineratzeko aukera erraztea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna


Oso baxua **Baxua** **Ertaina** Handia Oso handia

A3. I4. E4. Amurrio Antzokiarekin lankidetzaren optimizatzea.

Dantza Eskolaren eta Amurrio Antzokiaren artean maiztasunez solasaldi bat izateko aukera emango duen lanerako metodologia bat finkatzea. Hauek izango dira helburu orokorrak:

- Dantzarekin lotutako gertakizunak partekatu eta proposamenak koordinatzea, gainjartzeak ekidin eta hedapena indartzeko xedez.
- Maila ezberdinetan lankidetzaren aritzea (aurrekontua, baliabideak, orientazioa, etab.) baterako ekimen berriak aktibatzearen xedez.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia

A3. 15. Liburutegia.

Ikuspegia 2032. urtera begira

Amurrioko Liburutegia erreferentziatzko proiektu bat da bere arloan, hala udalerrirako nola eskualdeko gainerako eremuetarako. Proiektuaren ezaugarri behinena erabiltzaileen ahalmen sortzailea akuilatzen duen aldi berean irakurketa sustatzen duen bitartekaritza-programa egonkor bat eskaintzea da. Bitartekaritza-programa hau Liburutegiaren funtsaren diseinuan parte hartzen duten herriko beste kultura eragile batzuekin lankidetzan egonkorra izatetik datozen ekarpenekin aberasten da. Liburutegiak inbentario eguneratua eta sarbide errazeko gailu bat ditu.

Espazio modura, Liburutegia funtsean gardena da, bertan garatzen diren jarduera ezberdinetara egokitzeko modukoa eta pertsonarekin eta pertsonen arteko harremana ahalbidetzen duena. Gainera, erabiltzaileen premiak kontuan izaten dira ekipamenduaren irekiera-ordutegiak zehazterako garaian.

Liburutegiko proiektuak etengabe gainbegiratzen den publikoen plan bat du, ohiko erabiltzaileen arteko harremanak sendotzeari nahiz profil berriak gaineratzeari heltzen diona. Proiektuan arreta berezia eskaintzen zaie haurrei eta gazteei, eta haiekin batera lan egiten da, partikulari zein ikastetxeen bidez.

Liburutegiak inpaktu handiko proiektu bat garatzeko beharrezkoak diren baliabideak ditu (giza baliabideak, materialak eta aurrekontuekin lotutakoak). Bertako lantaldea etengabeko prestakuntzan da, hala gaitasun digitaletan nola sektoreko beste joera batzuetan.

Halaber, udal espazio kulturala izaki, Liburutegiak modu aktiboan parte hartzen du Udalaren aldetik deitzen diren lan-topaketa / bilkuretan.

Egoera 2022an

Indarguneak

- Udalerrian zein eskualde mailan sendotuta dagoen erreferentziatzko espazioa da.
- Laneko dinamika eta programazio egonkorak dituen proiektu bat da.
- Harreman egonkorra mantentzen du publiko espezifikoekin: ikastetxeak, irakurketa-klubak, etab.
- Proiektua zein herria ezagutzen dituen lantaldea du.
- Proiektuak jarrera irekia du lan / ekintza ildo berriak aktibatzearen aurrean.

Asmoak

- Egun espazioari dagokionez dauden mugak ebaztea.
- Inbentarioa eguneratu eta gordailurako irisgarritasuna ahalbidetzea.

- Bitartekaritza bitartekaritza-proiektu baterako proiektuaren ardatz bilakatzeko aurrekontua areagotzea.
- Udalarekin nahiz udalerriko gainerako kultura eragileekin solaserako bideak optimizatzea.
- Publikoen garapenerako lanean lagundu eta komunikazio-ekintzak hobetuko dituen datu-base zentralizatu bat izatea.
- Proiektuaren ebaluazio kualitatibo bat sistematizatzea.

Ekintzak

A3. I5. E1. Espazioa egokitzea.

Liburutegiko proiektua publiko ezberdinak (haurrak, ikasleak, kolektiboak, etab.) eta laneko esparru ezberdinak (bitartekaritza, irakurketa, ikasketa, gordailua, funtsen erakusketa, etab.) artatzeko aukera emango duen espazio batean garatzeko aukera ematea. Horrek egungo egoitzan ahal diren aldaketak egitea edota, beharrezkoa izango balitz, kokapen osagarri berriak gaitzea suposatuko du.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina **Handia** Oso handia

A3. I5. E2. Inbentarioa eguneratzea.

Liburutegiari bertako inbentarioan beharrezkoak diren doikuntzak egiteko ezinbestekoak zaizkion baliabideak (giza baliabideak, teknikoak, aurrekontuari dagozkionak, etab.) ematea.

Kronograma

(2022) (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** Handia Oso handia

A3. I5. E3. Arreta bitartekaritzan ipintzea.

Liburutegiari pixkanaka bitartekaritzak eginkizun nagusia beteko duen proiektu bat bilaka dadin beharrezkoak diren baliabideak (giza baliabideak, teknikoak, aurrekontuari dagozkionak, etab.) ematea, helburu nagusia irakurketa sustatzeko lagungarri izango diren proposamenak diseinatu eta hura esparru artistiko, ezagutzaren alor eta formatu ezberdinekin lotzea izanik.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** **Handia** Oso handia

A3. I5. E4. Ordutegi-irekiera egokitzea.

Liburutegiari publiko ezberdinek ordutegiari dagokionez dituzten premietara egokitu ahal izateko tarteak izan dezan beharrezkoak zaizkion baliabideak (giza baliabideak, teknikoak, aurrekontuari dagozkionak, etab.) ematea.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** **Ertaina** Handia Oso handia

A3. I5. E5. Lantaldeari etengabeko prestakuntza bermatzea.

Liburutegiko lantaldeak bere lanketak burutzeko beharrezkotzat jotzen dituen prestakuntzak eskuratu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak (aurrekontuari dagozkionak, denbora aldetikoak, etab.) izatea.

Kronograma

(2022) (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia

A3. I5. E6. Proiektua ebaluatzea.

Proiektuaren jardunaren, bereziki bitartekaritzarekin lotuta, inpaktuak aldizka²⁴ aztertzeo aukera emango duen ebaluazio-sistema bat sortzea.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua (Baxua) Ertaina Handia Oso handia

A3. I4. E7. Udalarekiko harremana optimizatzea.

Liburutegiaren eta Udalaren artean maiztasunez solasaldi bat izateko aukera emango duen lanerako metodologia bat finkatzea. Hauek izango dira helburu orokorrak:

- Bi aldeek garatutako jarduera / premia / proiektuen inguruko elkarren arteko jarraipena egitea.
- Maila ezberdinetan lankidetzaz ahalbidetzea.


Kronograma

(2022) (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

(Oso baxua) Baxua Ertaina Handia Oso handia

²⁴ Proiektuaren ebaluaziorako oinarrizko proposamena izeneko IX. eranskinean jaso.



A4. Zerbitzu publikoko deiera duten herritarren ekimenak.

Zerbitzu publiko bat eskaintzen duten eta Udalak emandako zerbitzuaren osagarri izango diren herriko biztanleen ekimenekin lotutako premiak artatzea.

A4. I1. Aiara Dantza Taldea.

Ikuspegia 2032. urtera begira

Aiara Dantza Taldea herri ekimenez sortu eta denborarekin sendotu den proiektu bat da. Bere irakaskuntza- eta gobernantza-eredua ezagutzaren elkartrukean eta belaunaldi-txandan dago oinarritua.

Euskal dantzetako prestakuntza-jarduera adin ezberdinetako pertsoneri dago zuzendua eta taldeak ekintza zehatzak burutzen ditu ikasleen artean profil anitzak gaineratzeko (desgaitasuna duten pertsonak, mugikortasun-egoeran diren pertsonak, gizonak, etab.).

Halaber, Aiara Dantza Taldeak modu aktiboan parte hartzen du kultura izaerako edota jai kutsuko tokiko ekitaldietan, eta proiektuak sarbide irekiko biltegi digital bat du. Bertan taldeak erabiltzen dituen dantzako teknikekin lotutako alderdiak daude erregistratuta, eta baita horien irakaskuntzarako prestakuntza arloko ohar eta metodologiak, jantziekin eta musikarekin zerikusia duten alderdiekin batera. Aiara Dantza Taldeak proiektuak bertan parte hartzen duten pertsonengan duen inpaktua jasotzen duen ebaluazio-sistema bat du.

Proiektuak lankidetzan egonkorreko harremana du tokiko beste kultura eragile batzuekin eta publikoen (kulturakoak orokorki eta dantzakoak zehazki) sorreran laguntzen du, Amurrion.

Egoera 2022an

Indarguneak

- Udalerrian zein eskualde mailan sendotuta dagoen erreferentziako proiektua da.
- Udalerrian zein eskualde mailan sendotuta dagoen erreferentziako proiektua da.
- Zuzendaritza-talde gaztea du.
- Herri Musika Eskolarekin gertuko harremana du.
- Udal taldearekin ongi ulertzen da.
- Proiektuak jarrera irekia du lan / ekintza ildo berriak aktibatzearen aurrean.

Asmoak

- Taldean 12-16 urte bitarteko pertsonen parte-hartzea areagotzea.
- Dokumentazio-proiektu bat garatzeko baliabideak areagotzea, hauek barneratuko dituenak:
 - Aiara Dantza Taldearen berezko dantza-teknikak.
 - Horien irakaspenerako prestakuntza arloko ohar eta metodologiak.
 - Jantziei eta erabiltzeko musikari buruzko edukiak.
- Ebaluazio-sistema optimizatzea, proiektuak bere testuinguruan duen inpaktua modu sistematikoan balioetsi ahal izan dadin.
- Tokiko beste eragile batzuekin lankidetzak sendotzea.

Ekintzak

A4. I1. E1. Aiara Dantza Taldea babestea publiko espezifikoekin egiteko lanean.

Aiara Dantza Taldeak ezartzen dituen lehentasunezko publikoekin loturak sortu edota sendotzera bideratutako balizko ekimenetan taldeari laguntzea (esate baterako, dokumentu hau idazteko unean, 12 eta 16 urte bitarteko pertsonak lehentasunez artatzeko segmentua dira).

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

A4. I1. E2. Helburu dokumentaletarako baliabideak areagotzea.

Aiara Dantza Taldearen dokumentazio-proiektuari heltzea, hura baliabide tekniko edota giza baliabideekin zein aurrekontuari dagozkion baliabideekin lagunduz.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

A4. I1. E3. Ebaluazio-sistemaren optimizazioa babestea.

Aiara Dantza Taldeari proiektuak haren testuinguruan duen inpaktua balioesteko aukera emango duen ebaluazio-esparru bat finkatu ahal izateko baliabideak ematea.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

A4. I1. E4. Aiara Dantza Taldea lankidetzaproiektuetan txertatzea.

Taldea, udal eremutik edo ekimen pribatuz bultzatuta, lankidetzan, Amurrión kultura arloko publikoak sortu eta sendotzea helburutzat duten balizko proiektuetan parte hartzera gonbidatzea.

Kronograma

(2022) (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

A4. I2. Burubio Kultur Elkarteak.

Ikuspegia 2032. urtera begira

Burubio Kultur Elkarteak herri ekimenez sortu eta denborarekin sendotu den proiektu bat da, Amurrión Euskadiko musika-mapan kokatzen duena. Hauek dira haren lan-ildo nagusiak: testuinguruko musikariei entsegurako lokalak eskaintzea, musika-jarduerak programatzea eta beste diziplina batzuk uztartuz, soinu eta ikus-entzunezko grabaketa-espazioak eskaintzea eta Udalarekin zein udalerriko beste eragile batzuekin lankidetzan proiektuak hartzea.

Burubiok bere jarduerak garatzeko lokal aproposak ditu, eta baimen guztiak araudiaren arabera. Halaber, kultura elkarteak behar bezala kudeatzen ditu proiektuari dagozkion zerga eta administrazio arloko alderdi guztiak.

Burubiok Udalaren konplizitatea duen proiektu bat du. Konplizitate horrek, besteak beste, solasaldi jariakorra, premien arabera proiektuaren akonpainamendua, baterako ekimenak aktibatzea edo laguntza komunikatiboa ekartzen ditu.

Burubiok lankidetzaren egonkorreko harremana du tokiko beste kultura eragile batzuekin eta publikoen (kulturakoak orokorki eta musikakoak zehazki) sorreran laguntzen du, Amurrion.

Egoera 2022an

Indarguneak

- Eskualdean parerik ez duen proiektu bat da, beste edozein jardueraren osagarri eta modu adierazgarrian aberasten duena testuinguruko kultura bizitza oro har eta, musikarekin lotutako kultura zehazki.
- Proiektua herri ekimenari esker sortu eta herritarren babesari eta pertsona sustatzaileen konpromisoari esker sendotu da.
- Proiektuak jarrera irekia du lan / ekintza ildo berriak aktibatzearen aurrean.

Asmoak

- Baimen guztiak arau barruan izatea.
- Proiektua, zerga zein administrazio arloan modu egokian kudeatzea.
- Udalaren aldetik udalerriko proiektu estrategiko modura kontuan izan dadila.
- Ebaluazio-sistema optimizatzea, proiektuak bere testuinguruan duen inpaktua modu sistematikoan balioetsi ahal izan dadin.
- Tokiko beste eragile batzuekin lankidetzak sendotzea.



Ekintzak

A4. I2. E1. Espaziorako beharrezkoak diren lizentziak eskuratzea.

Udalerrri mailan egun Burubiok kudeatzen duen espazioak legeari dagokionez dituen hutsuneei irtenbidea emateko beharrezkoak diren prozesuak aktibatzea. Horretarako, beharrezkoak diren alternatiba guztiak balioetsiko dira (balizko lizentzia ezberdinak aztertzea, obrak egikaritzea, espazioa alboko pabilioiekin areagotzea, proiektua birkokatzea, etab.).

Kronograma

2022 2023 2024 2025 2026 2027 2028 2029 2030 2031 2032


Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** **Ertaina** Handia Oso handia

A4. I2. E2. Proiektuaren kudeaketa babestea.

Udal esparrutik proiektua kudeatzen duen taldeari laguntza ematea behar bezala kudea dezan, zerga zein administrazio arlotan. Laguntza hori une bakoitzean egokiena den eran emango da: prestakuntza, aholkularitza, langileen kontratazioa, etab.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna


Oso baxua **Baxua** **Ertaina** Handia Oso handia

A4. I2. E3. Lankidetzan egiteko ekimenak bultzatzea.

Burubiok balizko lankidetzaren proiektutan parte har dezan laguntza ematea, izan proiektu horiek Udalak bultzatutakoak edo beste ekimen pribatu batzuen bidezkoak, edo elkartetik bertatik iradokitako proposamenen ondorio. Ildo horretatik, Burubio kontuan izango da:

- Xede ezberdinekin erabil daitekeen espazio bateko eragile kudeatzaile gisa (egun eskaintzen direnei gaineratzekoa, horietako asko udalerrian artearen prestakuntzarekin lotuta aurretiaz dauden proiektuekin lotuta daude).
- Bere proiektuari ez ezik, oro har Amurriorako pizgarri modura balio duten ekitaldien eragile sustatzaile gisa²⁵.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** **Ertaina** Handia Oso handia

²⁵ Dokumentu hau eratzeko prozesuan zehar Amurriock sariketa aipatzen da babesten jarraitzeko ekitaldi estrategikoen artean.

A4. I2. E4. Udal esparruarekiko harremanak optimizatzea.

ABurubioren eta Amurrioko Udaleko edozein sailen arteko solasaren jariakortasuna eta eraginkortasuna hobetzeko, eta proiektua udalerriko eragile estrategiko modura kontuan izateko (komunikazio mailan ere bai) beharrezkoak diren prozesuak aktibatzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

A4. I1. E5. Proiektuaren bilakaera babestea.

Burubiok bere proiektua eboluziona dezan eta laneko esparru batzuk optimizatzeko, besteak beste, proiektuaren ebaluazioa edo bertako publikoekin egiteko lanketa, baliabideak ematea (datu-baseak kudeatzea, profil berrietara hurbiltzeko helburu eta ekintzak ezartzea edo aurretiaz daudenekin harremanak sendotzea, etab.).

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

A4. I3. Elkarte-ehuna.

Jarraian, dokumentu hau eratu zen unean Amurrion elkarteen aldetik zegoen jarduera izango da aipagai.

Atal honetako edukia Udalak 2021ean elkarte bakoitzarekin egindako bilkuren ondotik eraturako dokumentutik abiatuz osatu da. Zentzu horretan, bi kontu aipatu behar dira:

- Zenbaitetan gai nagusi bat izan arren, ez dira espazioekin lotutako gogoetak jasotzen, izan ere, Kultura Plan honekin batera eratze-prozesuan den Udal Ekipamenduen Planean jasota izatea aurreikusten da.
- Hemen urtero xehetasunez azaldu asmo diren ekintza orokorrak jasotzen dira, plan honen indarraldian zehar elkarte bakoitzean sor daitezkeen premia zehatzak artatzeko tarte egon dadin.

A4. 13.1. Aimara Antzerkia.

Egoera 2022an

- Antzerki kolektibo amateurra, berezko entseguen jarduera duen funtsezko helburutzat.
- Antzerki laburreko jardunaldiak eta antzerki amateurraren erakusketa antolatzen dituen eragilea, Udalarekin lankidetzan, hura baita gastuak beregain hartzen dituena.

Ekintzak

A4. 13.1. E1. Kolektiboaren jarduera babestea.

Taldeak bere jardunarekin jarraitu ahal izateko egokitzat jotzen diren baliabideak helaraztea. Baliabide horiek espazioen egokitzapenarekin lotuta egon daitezke, eta baita aurrekontu edota izapideei buruzko alderdiekin ere.

A4. 13.1. E2. Komunitatearekiko harremana ahalbidetzea.

Kolektiboa komunitatearen eragile dinamizatzaile modura kokatzeko balizko ekimenak aztertzea, tokiko ingurunean duen eragin positiboa areagotuz.

A4. 13.2. Armuru Filatelia eta numismatika.

Egoera 2022an

- Filatelia eta numismatikako urteroko erakusketa antolatzen duen eragilea (azaroaren amaieran, abenduaren hastapenean), numismatika eta filateliari buruzko konferentziak antolatzear gain.
- Belaunaldien arteko txandari dagokionez zailtasunak daude.

Ekintzak

A4. I3.2. E1. Jarraikortasuna babestea.

Elkartearen jarduera babestea sor daitezkeen alderdietan.

A4. I3.3. Kuskua.

Egoera 2022an

- Jatorrian sevillar dantzak irakatsi eta dantzatzeko elkarte. Gehienbat emakumeez osatua dago.
- San Jose auzoarekin duen konpromisoa areagotu egin duen eragilea.
- Komunitatera lotzeko prestutasuna.

Ekintzak

A4. I3.3. E1. Auzoarekiko lotura handiago baterako bideak aztertzea.

Kuskuak eta San Jose auzo-elkarteak bat egiteko aukera aztertzea.

A4. I3.3. E2. Jarraikortasuna babestea.

Elkartearen jarduera babestea sor daitezkeen alderdietan.

A4. I3.4. Mikologia.

Egoera 2022an

- Mikologiaren Astea antolatzen duen eragilea, aholkularitza-zerbitzu baten hornitzaile izateaz gain.
- Belaunaldien arteko txandari dagokionez zailtasunak daude.

Ekintzak

A4. I3.4. E1. Jarraikortasuna babestea.

Elkartearen jarduera babestea sor daitezkeen alderdian, akonpainamendua barne, haren elkarte-egitura eguneratze aldera.

A4. I3.5. Vera Cruz.

Egoera 2022an

- Kofradia.
- Bertako bazkideen inplikazioari dagokionez badago zer hobetu.

Ekintzak

A4. I3.5. E1. Jarraikortasuna babestea.

Elkartearen jarduera babestea sor daitezkeen alderdian.

A4. I3.6. Battuere.

Egoera 2022an

- Batukadarekin lotutako elkarte.
- Berriki sortutako eragilea da, eta komunitatearekin lotutako ekimenetan kolaboratzeko prest dago.

Ekintzak

A4. I3.6. E1. Jarraikortasuna babestea.

Elkartearen jarduera babestea sor daitezkeen alderdian.

A4. I3.7. Aztarna.

Egoera 2022an

- Goi Nerbioiko etnografia eta kultura hedapenerako elkarteak.
- Proiektu ugari eta jardun handia duen eragilea da.
- Belaunaldien arteko txandari dagokionez zailtasunak daude.

Ekintzak

A4. I3.7. E1. Jarraikotasuna babestea.

Proiektu ezberdinekin (besteak beste, Museoa, Arlamendiko haztegia, San Pedro de Berazako lubakia eta toponimoen berrikuspina) lotuta sor daitezkeen alderdietan elkartearen jarduna babestea.

A4. I3.8. Eskaut.

Egoera 2022an

- Denbora librean 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak hezteko elkarteak, eskautismoaren balioei jarraiki. Balio kristauak, talde-lana, adiskidetasuna eta naturaren eta ingurumen-balioen errespetua lehenesten dituen nazioarteko mugimendu batean parte hartzen du.
- Asteburutan irteerak eta udan udalekuak antolatzen dituen eragilea da. Halaber, beste hainbat ekitaldi egiten ditu, besteak beste, Gorka Deuna, Euskal Herriko Eskautekin batera.

Ekintzak

A4. I3.8. E1. Jarraikotasuna babestea.

Elkartearen jarduera babestea sor daitezkeen alderdietan.

A4. 13.9. Gakoak

Situación en 2022

- Ikuspegi kristau batekin gai sozialak planteatu eta horri buruzko eztabaida plazaratzeko xedea duen elkarte.
- Belaunaldien arteko txandari dagokionez zailtasunak daude.

Ekintzak

A4. 13.9. E1. Jarraikotasuna babestea.

Elkartearen jarraipena bermatzea, bertako kideek jarduera sortzen eta komunitatearekin lotura izaten jarraitzeko borondatea izan artean.

A4. 13.10. Torre Aldea.

Egoera 2022an

- Erretiroa hartutako pertsonen elkarte.
- Txangoak (kanpoko hornitzaileek kudeatuak, bidaia-agentziek), dantzak eta mahai-jokoak antolatzen dituen eragilea.

Ekintzak

A4. 13.10. E1. Adinekoen Kontseiluko kide gisa dagokion eginkizuna indartzea.

Bi proiektuak uztartu eta elkarren osagarri izateko alternatibak aztertzea.

A4. 13.11. Amurrio Racing Slot.

Egoera 2022an

- Funtsezko jardueraren helburua haurren denbora librearekin lotuta duen elkarte.

- Jaiegunetan jarduerak antolatzen dituen eragilea, Gabonetako Haurren Parkea barne.
- Belaunaldien arteko txandari dagokionez zailtasunak daude.

Ekintzak

A4. I3.11. E1. Jarraikortasunerako balizko bideak aztertzea.

Etorkizun batean elkarteak bere jarduerarekin jarraitzeko dauden alternatibak aztertzea.

A4. I3.12. San Jose Auzotarren elkarteak.

Egoera 2022an

- Helburu modura kultura, aisia eta kirol jarduerak bultzatzea, herritarren parte-hartzea dinamizatzea eta San Jose auzoaren hobekuntza bultzatzea duen elkarteak.
- Tradizionalki txangoak antolatu, festetan parte hartu eta horiek antolatu, Gabonetako jaiotza antolatu eta bazkidearen eguna ospatzen duen eragilea. Halaber, jardun artistikoko jarduerak ere dinamizatzen dituzte.
- Belaunaldien arteko txandari dagokionez zailtasunak daude.

Ekintzak

A4. I3.12. E1. Jarraikortasuna babestea.

- Elkarteak bere jardunarekin jarraitzeko balizko bideak aztertzea, beste eragile batzuekin integratzeko aukera barne, Kuskuarekin adibide batera.

A4. I3.13. Radio Club Ayala EA2RCA.

Egoera 2022an

- Helburutzat Araban irrati-zaletasuna deszentralizatu eta zaletasun hori garatzeko erraztasun gehiago eskaintzea duen elkarteak.
- Tokiko lehiaketa, diploma eta ekintza bereziak antolatzen dituen eragilea, besteak beste, parte-hartzea Inauterietan, Aste Santuetan, San Prudentzio egunez, Festetan eta Gabonetan.

Ekintzak

A4. I3.13. E1. Jarraikortasuna babestea.

Elkartearen jarduera babestea sor daitezkeen alderdietan.

A4. I3.14. Ohiturak.

Egoera 2022an

- Gabonetan Olentzerorekin lotutako jarduerak antolatzeko xedea duen elkarte (bestela Udalak kudeatu beharko lituzkeen jarduerak).
- Aurrekontu aldetiko zailtasunak ditu, izan ere, elkarteak dirua aurreratatu behar izaten du jardueren garapena egiazkoa izan dadin.

Ekintzak

A4. I3.14. E1. Aurrekontu aldetiko zailtasunak ebaztea.

- Udalaren ekarpena berrikustea.
- Udal esparrutik jarduerekin lotutako zenbait gastu beregain hartzea.

A4. I3.14. E2. Jarraikortasuna babestea.

Elkartearen jarduera babestea sor daitezkeen alderdietan

A4. I3.15. Zankueta Korua.

Egoera 2022an

- Amurrion dagoen abesbatza bakarra da, gehienbat adin nagusiko emakumez osatua.
- Normalean laguntza behar izaten duten beste kolektibo batzuen integrazioan egiten duen lana dela medio eragile garrantzitsua da.
- Aurrekontu aldetiko zailtasunak.
- Kide berriak gaineratzeko premia.

Ekintzak

A4. I3.15. E1. Jarraikortasuna babestea.

- Abesbatzak jasotzen duen aurrekontu-partida areagotzeko aukera aztertzea.
- Kide berriak gaineratzearen alde egitea.

A4. I3.15. E2. Lankidetzak sortzea.

Abesbatzarekin gizartean inpaktua duten eta elkarteak bere proiektua bultzatzeko aukera ematen duten ekimenak bultzatzea.

A4. I3.16. Garrastatxu Aisialdi Elkarteak.

Egoera 2022an

- Baranbion kokatutako elkarteak da, ingurune horretako premiak artatzeko xedez.
- Bertako bazkideei zuzendutako kultura eta aisiaren arloetako jarduerak antolatzen dituen eragilea da: kontzertuak, dastatzeak, bazkari kolektiboak, etab.

Ekintzak

A4. I3.16. E1. Jarraikortasuna babestea.

Elkartearen jarduera babestea, Baranbioko auzotarren arretan funtsezko eragile gisa.

A4. I3.17. Santa Marina Olarri (San Roke).

Egoera 2022an

- San Roke auzoan kokatzen den auzotarren elkarteak da, eta funtsezko helburu gisa kulturari dagokionez auzoaren ongizatea eta garapena ziurtatzea da.
- Auzotarren denbora librearekin lotutako jarduerak antolatzen dituen eragilea: txangoak, zinema edo antzerkirako irteerak antolatuz, bazkide diren pertsonentzat urtero bidaia bat antolatuz, mendi-irteerak eginez, San Rokeko jaiak antolatuz edota San Rokeko ermita mantendu eta garbituz.

Ekintzak

A4. I3.17. E1. Belaunaldi arteko txanda-hartzea babestea.

Elkartean belaunaldi-txanda zilegitzeko arrazoiak eta balizko irtenbideak aztertzean, bertako zuzendaritza-batzordea barne.

A4. I3.18. Kanpai-jotzaileen elkarte.

A4. I3.18. Kanpai-jotzaileen elkarte

- Helburutzat ezkila-jotzearen ondare ukiezin mantentzea (modalitate ezberdinetan) duen elkarte da.
- Eragile hauekin arduratzen da:
 - Ezkila-jotze eguna antolatzeaz, Artzain Egunean izaten dena.
 - Udalerriko ordulari publiko guztien mantenuaz, elizetakoak zein udaletxekoa.

Ekintzak

A4. I3.18. E1. Ekimen berriak bultzatzea.

Elizako dorrera eta ezkiletara bisita gidatuak egitea babestea, agian turismo-bulegoarekin lankidetzan.

A4. I3.19. Villa de Amurrio familia elkarte.

Egoera 2022an

- Amurrioko familia guztiak artatzea helburutzat duen elkarte.
- Hainbat jarduera sozial eta kultural antolatzen dituen eragilea, besteak beste: atzoko gaztearen eguna herriko jaietan, tute, briska eta mus txapelketak, jaietako dantzak, hitzaldiak eta ekintza ugari Gabonetan.
- Gero eta gutxiagotan egiten den jarduera.

Ekintzak

A4. 13.19. E1. Elkartearen jarraikortasuna babestea.

Azkenaldian jardueraren etena ebazteko arrazoiak eta balizko irtenbideak aztertzea.

A4. 13.20. Gizaki Sakon.

Egoera 2022an

- Egoera pertsonal zail batetik igarotzen ari diren pertsonei babes emozionala eskaintzera bideratutako elkarteak, babes horren oihartzuna esparru komunitariora zabalduz.
- Hitzaldi-zikloak antolatzen dituen eragilea, beti osasun mentalaren inguruan.
- Gero eta gutxiagotan egiten den jarduera.

Ekintzak

A4. 13.20. E1. Elkarteko proiektuaren jarraikortasuna edo birmoldaketa babestea.

- Azken urteetan jardueran izandako jaitsiera arintzeko arrazoiak eta balizko irtenbideak aztertzea (adineko pertsonekin Kontseiluarekin lotuta).

A4. 13.21. Uhin Ona.

Egoera 2022an

- Aretoko dantzei erreparatzen dien elkarteak.
- Gero eta gutxiagotan egiten den jarduera.

Ekintzak

A4. I3.21. E1. Elkartearen jarraikortasuna babestea.

Azken urteetan jardueran izandako jaitsiera arintzeko arrazoiak eta balizko irtenbideak aztertzea.

A4. I3.22. Biruzabal.

Egoera 2022an

- Honakoak antolatzen dituen elkarteak: dekorazio-, errestaurazio- eta sukaldaritza-ikastaroak, irteerak abuztuan, eskulanen erakusketa.
- Gizarte egituratzailea den eragilea da, jokoak, askariak, San Mames jaiegunaren inguruko txokolate-jana (abuztua), Santa Zeziliako afaria (azaroan) eta Olentzero eta Errege Magoen jaiegunak antolatuz.
- Gero eta gutxiagotan egiten den jarduera.

Ekintzak

A4. I3.22. E1. Elkartearen jarraikortasuna babestea.

Azken urteetan jardueran izandako jaitsiera arintzeko arrazoiak eta balizko irtenbideak aztertzea.

A4. I3.23. Arrastarikoak.

Egoera 2022an

Delika eta Tertangan bizi diren adin nagusiko pertsona guztientzat eskulanetako eta gimnasiako tailerrak antolatzen dituen elkarteak.

Ekintzak

A4. I3.23. E1. Elkarteak sendotzea.

Elkartearen kudeaketan pixkanaka izandako hobekuntzari zehazki heldzea, haren ordezkaritza eta irismena barne.

A4. 13.23. E1. Hurbilketa–neurriak bultzatzea.

Amurrio erdialdera arteko garraioa ahalbidetzeko formuletan sakontzea, bertako auzotarrek han garatzen diren jardueretan parte-har dezaten bultzatzeko.

A4. 13.24. Bañuetaibar.

Egoera 2022an

- Berriki auzo gazte bat, Bañuetaibar, artatzeko sortutako auzotarren elkarte.
- Jarduera andana antolatzen dituen eragilea: tailerrak, ikastaroak, ludotekak, etab.


Ekintzak

A4. 13.24. E1. Elkartearen sendotzea.

Elkartearen kudeaketan pixkanaka izandako hobekuntzari zehazki heltzea, Udalarekin izateko solasaldia barne.

A4. 14. Atal honetan, balizko eragile berriak gaineratzea bermatzea.

Plan hau idatzi den momentuan, elkartuta ez dauden baina garrantzi estrategikoa duten ekimen komunitarioak daude. Hori da, besteak beste, Otsemeak eta Gazte Asanbladaren kasua. Era berean, azpimarratzekoa da asoziazionismo ez-kulturalaren papera, baina kulturaren munduari lotua. Hala, plana prest egongo da lotutako eragile horiei laguntzeko, bai eta eragile berriak sortzen laguntzeko ere.



A5. Sorkuntza garaikidea.

Arteko diziplina ezberdinei lotutako proiektu artistiko garaikideen garapenean ekarpena egitea.

A5. I1. Sorkuntza babestea.

Diziplina ezberdinekin lotutako proiektu artistikoen garapena ahalbidetzea.

A5. I1. E1. Urteko deialdiak aktibatu eta sendotzea.

Helburu hauek dituzten bi deialdi, gutxienez, martxan jartzea:

A5. I1. I1.1. Sorkuntza eta esperimentazio artistikoa bultzatzea.

Herritarrekin elkarrekintza jasotzen duten sorkuntza / esperimentazio artistikoko proiektuak babestea, edozein diziplinakoak²⁶.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina **Handia** Oso handia

A5. I1. E1.2. Ondarearen inguruan lan egitea.

Amurrioko ondare material eta immaterialari buruzko esku-hartze artistikoa bultzatzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** Handia Oso handia

²⁶ Urteko deialdirako oinarrizko proposamena izeneko X. eranskinean jaso..

A5. I2. Tokiko artisten obrak erakustea.

Tokiko sormena balioan jartzea testuinguruko artisten obrak herritarrekin harremanetan ipintzeko espazio eta ekimenak ahalbidetuz.

A5. I2. E1. Tokiko obra erakusketa-espaziotan.

Amurrioko erakusketa-espazioetan (aurretiaz daudenetan eta etorkizunekoetan) tokiko artisten obren erakusketa lehenestea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia

A5. I3. Testuinguru hurbileko eragileekin kolaboratzea.

Jarrera aktibo bat mantentzea, Amurrioko testuingurutik hurbileko eragileekin, publiko zein pribatuekin, loturak finkatu eta sendotzeko aukera ematen duena.

A5. I3. E1. Loturak sortu eta sendotzea.

Testuinguru hurbileko (Araba, Bizkaia, etab.) museo, kultura zentro edota hezkuntza eragileekin harremana estutzea, sorkuntza eta kultura garaikideari dagokionez lankidetzarako abaguneak identifikatze aldera. Honatx kooperaziorako zenbait aukera:


- Eragile horiek Amurriok bultzatutako deialdien balioespenerako batzordeetan parte har dezatela.
- Udalaren aldetik era ezberdineko erraztasunak ematea tokikoak ez diren sortzaileek bultzatutako sormen-proiektuen garapenari so, tokiko herritarrengan inpaktu positiboa duten ekintzak garatzearen truke.
- Probintzia edo erkidegoko programazio edo erakusketako zirkuitu / sareetan parte hartzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia



A6. Enpresa-proiektuak.

Kultura eta sormenaren sektoreko erakunde pribatuetan jarduera profesionala garatzea ahalbidetzeko testuinguru bat sortzea.

A6. I1. Sorkuntza berriko ekimenak bultzatzea.

Tokiko eragileek bultzatutako eta lehendabiziko aldiz martxan jarritako proposamen / proiektuen garapena ahalbidetzeko baldintzak sortzea.

A6. I1. E1. Tokiko eragileentzako deialdi bat aktibatzea.

Amurrio Bideanekin lankidetzan urtero deialdi bat bultzatzea, tokiko eragile batek (izaera juridikoarekin edo gabe) edo hainbat eragilek lankidetzan bultzatutako kultura ekimen baten esperientzia pilotu bat egiteko aukera emango duena. Hauek izango dira deialdi horren ezaugarriak:

- Izapide erraza.
- Aholkularitza-programa bat Amurrio Bideanen eskutik, esperientzia pilotu horretatik abiatuta, proiektuaren prototipoa taxutu eta etorkizuneko bideragarritasunerako moduak aztertzeko

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua (Baxua) Ertaina Handia Oso handia

A6. I2. Kultur eta sormen industriekin lotutako enpresen sorrera babestea.

Kultur eta sormen industriek Amurrion beren jarduera garatzeko aukera emango dien espazio bat eduki ahal izateko testuinguru bat finkatzea.

A6. I2. E1. Koordinazioa optimizatzea.

A6. I2. I1.1. Amurrio Bidean eta kultur esparruaren artean.

Amurrio Bidean eta Udaleko kultura sailaren artean maiztasunez solasaldi bat izateko aukera emango duen lanerako metodologia bat finkatzea. Hauek izango dira helburu orokorrak:

- Amurrion kultur eta sormen industriren sektorearen sare profesionala osatzen duten erakundeen jarraipen bat egitea, modu horretan, bi aldeetatik laguntzarako programa eta ekimenak doitu ahal izateko.
- Kultur arloko komunikaziorako bideak maiztasunez erabiltzea tokiko kultur eta sormen industriei Amurrio Bideanek bultzatu edo gomendatutako eta haien interesekoak izan daitezkeen programa edo ekimenak helarazteko.
- Amurrio Bideanek abian jarritako ekimenetan (prestakuntzak, foroak, ekitaldiak, etab.) kultur eta sormen industriren presentzia sendotzea, ez soilik zerbitzuen enpresa hornitzaile gisa, baizik eta haren jardun profesionalaren garapenean ezagutza eta esperientzia duten erakunde modura.
- Elkarren artean aktibatutako ekintzak koordinatzea, A6.I1.E1 gisa adibidez.
- Amurrio Bideanetik kultur eta sormen industriren sektorerantz zehazki bideratutako ekimen berriak diseinatzea (prestakuntzak, aholkularitza-prozesuak, laguntzak, etab.)

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia

A6. I2. E1.2. Amurrio Bidean eta beste instituzio batzuen artean.

Amurrio Bidean eta kultur eta sormen industriak bultzatzearen alde lan egiten duten eta haiei laguntzeko baliabideak dituzten beste instituzio batzuen artean (probintzia eta erkidegokoak izatea lehenetsiko da) solasaldi bat izateko aukera emango duen lanerako metodologia bat finkatzea. Hauek izango dira helburu orokorrak:

- Amurrio Bideanen aldetik bere herriko kultur eta sormen industriei begira interesgarriak izan daitezkeen baliabideen jarraipena egitea.
- Beste instituzio batzuekin lankidetzarako espazioak identifikatzea, horien ondorioz hau lortzeko aukerarekin:
 - Amurrioko kultur eta sormen industriren presentzia bultzatzea beste instituzio batzuek kudeatutako ekimen profesionaletan (prestakuntzak, foroak, ekitaldiak, etab.).
 - Amurrioko kultur eta sormen industrien beste instituzio batzuek bultzatutako programetan parte har dezaten laguntzeko bekak sortzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia

A6. I3. Amurrio abagunerako espazio modura kokatzea.

Proiektu bat garatzeko premia espezifikoak dituzten kultur eta sormen industrien sektoreko enpresei so (tokikoak izan zein ez) testuinguru egoki bat sortzea, hura gauzatzeko Amurrion baldintzak mesedegarriak aurki ditzaten.

A6. I3. E1. Amurrio izaera desberdineko kultura- eta sormen-proiektuen garapenerako aukera - espazio gisa kokatzea.


Amurrio izaera desberdineko kultura- eta sormen- proiektuen garapena ahalbidetzen duen aukera - espazio gisa kokatzeko aukera emango duten ekimenak bultzatzea.

Kronograma



Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** Ertaina Handia Oso handia



A7. Herriko jaiak.

A7. I1. Herriko jaien eredu baten sorreran laguntzea, haren kudeaketan parte hartuz eta gizarte-eraldaketarekin konpromisoa hartuta.

A7. I1. E1. Zeharkako esparruen araberako lanketa sustatuko duen antolamendu aldaketa bat bultzatzea.

A7. I1. E1.1. Bi aurrekontu-lerro zehaztea.

Lehenengoaren helburua agendako jarduerak programatzea izango da. Bigarrena, zeharkako gaien inguruko lana, agendako jarduerak edo jaiegunean ezarri beharreko bestelako neurriak izan daitezkeena.


Horrela, alde batetik, koadrilek eta elkarteek jaietako programarako ekimenak proposatzeko deialdiari eutsiko zaio. Aldi berean, lantaldeak eratuko dira (interesa duen edozein pertsonak parte hartuko du), eta Amurrioko jai-proiektuan gizarte-intereseko ikuspegiak/gaiak integratzeko moduak planteatuko dituzte, iruditeria kolektiboan kokatzea gakotzat jotzen bada (ingurumena zaintzea, aniztasuna errespetatzea, berdintasunaren defentsa, ohitura osasungarriak, etab.).

Kronograma

2022 **2023** **2024** **2025** **2026** **2027** **2028** **2029** **2030** **2031** **2032**

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** **Ertaina** Handia Oso handia



A8. Kulturaren zeharkakotasuna.

Kultura balioan jartzea beste esparru batzuetan (gizartea, osasuna, ingurumena, ekonomia, etab.) eragina izateko ahalmena duen esparru gisa.

A8. I1. Kultura gizarte-eraldaketarako elementu modura balioan jartzea.

Amurrion garatutako kultura proiektuek maila ezberdinetan duten inpaktua ikusaraztea.

A8. I1. E1. Bitartekaritzako baliabideak ahalbidetzea²⁷.

Prestakuntza edota aholkularitzako programak bultzatzea eta tokiko kultura eta sormen arloko eragileei gidak edota bibliografiak helaraztea beren jarduerak sorrarazitako inpaktu mota ezberdinak neur ditzaten.

Kronograma

2022 2023 2024 2025 2026 2027 2028 2029 2030 2031 2032

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

A8. I1. E2. Kontakizunak ikuspegi berri batetik ematea.

Amurrioko kultura proiektuak ikuspegi ezberdinetatik ikusteko aukera ematen duten komunikazio-edukiak sortzea, horiek sorrarazten dituzten inpaktu ezberdinak agerian gera daitezen.

Kronograma

2022 2023 2024 2025 2026 2027 2028 2029 2030 2031 2032

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua Ertaina Handia Oso handia

²⁷ Bitartekaritzarako oinarritzko proposamena izeneko XI. eranskinean jasoa.

A8. I2. Sektore ezberdinak gurutza daitezela ahalbidetzea.

Esparru ezberdinak uztartzen dituzten proiektuen garapenerako testuinguru mesedegarriak sortzea.

A8. I2. E1. Programa espezifikoak sortzea.

Kulturaren eta estrategikotzat jotzen diren beste sektore batzuen artean proiektu pilotuen garapena ahalbidetzea.

Kronograma

2022 2023 2024 2025 2026 2027 2028 2029 2030 2031 2032

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** Handia Oso handia

A8. I2. E2. Kanpoko programetan parte hartzea.


Amurrioko kultura eragileen, publiko zein pribatuen, partaidetza bultzatzea, kanpoko organismoek bultzatuta, kultura beste jarduera arlo batzuekin uztartzeko xedea duten programetan.

Kronograma

2022 2023 2024 2025 2026 2027 2028 2029 2030 2031 2032

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua **Baxua** **Ertaina** Handia Oso handia



A9. Kultura euskaraz.

Amurrioko kulturaren bizitzan euskararen presentzia sendotzea.

A9. I1. Komunitatea sortzea.

Euskarazko kulturaren kontsumitzaile edota parte-hartzaile diren publikoen komunitatea identifikatu eta sendotzea.

A9. I1. E1. Plangintza egitea.

Euskarazko kulturaren kontsumitzaile edota parte-hartzaile diren publikoen garapenerako plan bat sortu eta sendotzea. Hauek izango dira helburu orokorrak:

- Datu-basean, publiko-segmentu ezberdinak identifikatzea, euskarazko kultura proposamenetan duten parte-hartze mailaren arabera.
- Horietako bakoitzarentzat ekintzak diseinatzea (programazioarekin, bitartekaritzarekin, prestakuntzarekin edota komunikazioarekin lotuta), pixkanaka beren lotura maila areagotzen joateko.

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** Handia Oso handia

A9. I2. Euskarazko sorkuntza babestea.

Euskara beren jarduera artistikoko funtsezko ardatzen artean duten tokiko sortzaileei zuzendutako laguntza bermatzea.

A9. I2. E1 Programa espezifikoak sortzea.

Beren jardueraren funtsezko ardatz modura euskara duten tokiko sortzaileei laguntzeko ekimen espezifikoak aktibatzea (deialdiak, sariketak, bekak, etab.).

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** Handia Oso handia

A9. I3. Euskarazko erakusketak babestea.

Diziplina artistiko ezberdinekin lotutako euskarazko erakusketak bermatzea, alderdi hori udal ekipamendu eta proiektuetan aintzatetsiz eta horrela egin nahi duten eragile pribatuei laguntza emanez.

A9. I2. E2 Programa espezifikoak sortzea.

Proiektu publiko zein pribatuetan euskarazko erakusketa laguntzeko ekimen espezifikoak aktibatzea (deialdiak, sariketak, bekak, etab.).

Kronograma

2022 (2023) (2024) (2025) (2026) (2027) (2028) (2029) (2030) (2031) (2032)

Aurrekontu-eskakizuna

Oso baxua Baxua **Ertaina** Handia Oso handia

A9. I4. Lankidetzan lan egitea.

Udal euskara eta kultura sailen arteko lankidetzaren optimizatzea.

A9. I4. E1. Lankidetzaren sistematizatzea.

Udal euskara eta kultura sailen artean maiztasunez solasaldi bat izateko aukera emango duen lanerako metodologia bat finkatzea. Hauek izango dira helburu orokorrak:


- Euskarazko kulturaren kontsumitzaile edota parte-hartzaile diren publikoen plana elkarren artean sortu eta haren jarraipena egitea, proiektu hori ardatz nagusi bilakatuz, haren inguruan kultura proposamenak (sail batek zein besteak bultzatutakoak) diseinatu eta programatu.
- Euskaraz sortu eta erakustea bermatzeko baliabideak optimizatzea.
- Maila ezberdinetan lankidetzaren aritzea (aurrekontua, baliabideak, orientazioa, etab.) baterako ekimen berriak aktibatzeke xedez.
- Bi sailekin elkarrekintzan diren kultura erakundearen jarraipena egitea, kulturaren datu-basea eguneratu eta erakunde horiekin ahal den guztian harremana sendotze aldera.
